Berriaren Tradizioa

Guggenheim Bildumako Maisu-Lanak, 1945-1990

La Tradición de lo Nuevo

Obras Maestras de la Colección Guggenheim, 1945-1990



Berriaren Tradizioa
Guggenheim Bildumako
Maisu-Lanak, 1945-1990

1995eko maiatzaren 10etik uztailaren 15era

Bilboko Arte Ederretako Museoa. BBK Aretoa
REKALDE Erakustaretoa

La Tradición de lo Nuevo
Obras Maestras de la Colección
Guggenheim, 1945-1990

Del 10 de mayo al 15 de julio de 1995

Museo de Bellas Artes de Bilbao. Sala BBK
Sala de Exposiciones REKALDE

Honako hauen babespean/Con el patrocinio de

Aurkibidea

10
Erakusketaren atarian
M. Karmen Garmendia
Kultura Sailburua - Eusko Jaurlaritza
Tomás Uribeetxebarria
Kultura Diputatua - Bizkaiko Foru Aldundia

12
Hizarrea
Thomas Krens
Solomon R. Guggenheim Foundation-eko Zuzendaria

16
Guggenheim Bilbao Museoko irudiak

34
Guggeheim Bilbao Museoa: Etorkizuneko irudia Euskadirentzat
Scott Gutterman

41
Berriaren Tradizioa
Sam Hunter

60
Katalogoa

148
Artelanei buruzko iruzkinak

192
Artisten biografiak

232
Glosario

Indice

10
Prólogo
M. Karmen Garmendia
Consejera de Cultura - Gobierno Vasco
Tomás Uribeetxebarria
Diputado de Cultura - Diputación Foral de Bizkaia

12
Prefacio
Thomas Krens
Director de la Solomon R. Guggenheim Foundation

16
Imágenes del Museo Guggenheim Bilbao

34
Museo Guggenheim Bilbao: Una imagen de futuro para Euskadi
Scott Gutterman

41
La Tradición de lo Nuevo
Sam Hunter

60
Catálogo

148
Comentarios sobre las obras de arte

192
Biografías de los artistas

232
Glosario

Erakusketa honek ondoko hauen laguntza eskuzabala jaso du/
Esta exposición ha contado con el generoso patrocinio de:
Alexander & Alexander, El Correo, Euskal Irrati Telebista, Ferrovial,
Iberdrola, Construcciones LAUKI, Seguros U.A.P., URSSA

Guggenheim Bilbao Proiektuaren Partzuergoak Bilboko Arte Ederretako
Museoaren eta REKALDE Erakustaretoaren lankidetza eskertzen du/
El Consorcio del Proyecto Guggenheim Bilbao agradece su colaboración al
Museo de Bellas Artes de Bilbao y a la Sala de Exposiciones REKALDE

Bilboko Arte Ederretako Museoaren Zuzendaria/
Director del Museo de Bellas Artes de Bilbao
Jorge Barandiarán

REKALDE Erakustaretoaren Zuzendaria/
Director de la Sala de Exposiciones REKALDE
Javier González de Durana

Fotokonposaketa eta fotomekanika/Fotocomposición y fotomecánica
Didot, S.A., Bilbao

Katalogaren imprimaketa/Impresión del catálogo
Grafo, S.A., Basauri

Garraioa/Transporte
Gerlach Art Packers & Shippers

Aseguroak/Seguros
Johnson & Higgins

© Solomon R. Guggenheim Foundation. Guggenheim Bilbao Proiektuaren
Partzuergoa. Vegap, baimendutako erreprodukzioetarako, Bilbo. 1995
© Solomon R. Guggenheim Foundation. Consorcio del Proyecto
Guggenheim Bilbao. Vegap, para las reproducciones autorizadas, Bilbao, 1995

Bilbon inprimatua, 1995/Impreso en Bilbao, 1995
ISBN 84-605-2832-2
D.L. BI-667-95

Solomon R. Guggenheim museoa/
Museo Solomon R. Guggenheim

Erakusketa eta Katalogoa/Exposición y Catálogo

Zuzendaritza/Dirección
Lisa Dennison
Gail Harrity

Koordinaztoa/Coordinación
Joanna Handelman
J. Fiona Ragheb
Jana Joyce

Iruzkin eta biografien egileak/Autores de comentarios y biografías:
Jan Avgikos (J. A.)
Vivian Endicott Barnett (V. E. B.)
Jennifer Blessing (J. B.)
Cornelia Lauf (C. L.)
Ingrid Schaffer (I. S.)
Nancy Spector (N. S.)
Conservadores del Museo Guggenheim (C. M. G.)

Katalogoaren diseinu grafikoa/Diseño gráfico del catálogo
Michelle Martino

Argitarapen-ekoizpena/Producción editorial
Elizabeth Levy

Zuzendari teknikoa/Director Técnico
Paul Schwartzbaum

Erregistratzailea/Registradora
Laura Latman

Arte-prestakuntza eta instalazioa/Preparación e Instalación
Peter Costa
Ani González Rivera
Henry Kcimowicz
Andrew Roberts-Gray
Christopher Sixsmith

Bekariak/Becarios
Elena Urizar Ipiña
Luis Zufiaur

Guggenheim Bilboo Proiektuoren Portzuergoo/
Consorcio del Proyecto Guggenheim Bilboo

Erakusketa eta Katalogoa/Exposición y Catálogo

Zuzendaritza/Dirección
Juan Ignacio Vidarte

Koordinazioa/Coordinación
Arantza Odiaga

Argitalpena/Edición
Roberto Cearsolo
Mariola Moncada

Hezkuntza Egitarauaren koordinazioa/Coordinación del Programa Educativo
Marta Arzac

Zuzendaritza teknikoa/Dirección Técnica
Carlos Iturriaga

Gaztelania eta euskararako itzulpena eta frogen zuzenketa
Traducción y corrección de pruebas en euskera y castellano
ACENTOS (Vitoria-Gasteiz), Brian Webster, gaztelaniako taldearen zuzendaria; Manu López, euskarako taldearen zuzendaria
ACENTOS (Vitoria-Gasteiz), equipo de castellano dirigido por Brian Webster; equipo de euskera dirigido por Manu López

Erakusketako laguntza teknikoa/Asistencia Técnica en la exposición:
Juncal Aldamiz-Echebarria
Begoña Arístegui
Marina Etxegoien
Marta Peña
Marta Prado
Marta Saiz

Bisitaldi gidatuak Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako, Deustuko Unibertsitateko Filosofi Fakultateko "Ondare Historikoaren kudeaketa" izeneko graduondoko ikastaroko, eta Deustuko Unibertsitateko Aisialdirako Ikerketen Diziplinarteko Institutuko Ikasleen laguntzarekin burutu dira

Visitas guiadas con la colaboración de alumnos de la Facultad de Bellas Artes de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea; del curso de posgrado "Gestión del Patrimonio Histórico" de la Facultad de Filosofía y Letras de la Universidad de Deusto y del Instituto Interdisciplinar de Estudios de Ocio de la Universidad de Deusto

Erakusketaren atarian

M. Karmen Garmendia
Kultura Sailburua - Eusko Jaurlaritza
Tomás Uribeetxebarria
Kultura Diputatua - Bizkaiko Foru Aldundia

Hitzaurrea

Thomas Krens
Solomon R. Guggenheim Foundation-eko Zuzendaria

Prólogo

M. Karmen Garmendia
Consejera de Cultura - Gobierno Vasco
Tomás Uribeetxebarria
Diputado de Cultura - Diputación Foral de Bizkaia

Prefacio

Thomas Krens
Director de la Solomon R. Guggenheim Foundation

Egokiera heldu zaigu Guggenheim Bilbao Proiektuaren Partzuergoak, 1977an izango den Guggenheim Bilbao Museoko inaugurazioaren aurretiko erakusketa-egitarauaren barruan antolatutako bigarren erakusketaren Katalogoa aurkezteko. Eta gogo biziz egiten dugun gauza da, zinez.

1993ko abenduan ireki zen jendearentzat lehenbiziko erakusketa, *Guggenheim bildumako Maisulan Modernoak* izenburupean. Arrakasta berebizikoa izan zuen. Erakustaldi hartan zehaztasun nabarmenez jasotzen zen "arte modernoa" definizio orokorraren pean mende honetako lehen erdian sortutako artegintza plastikoa.

Lehenbiziko erakusketa hark oraingo osagarri hau eskatzen zuen ezinbestez, hots, azken berrogeita hamar urtetako adierazpen artistikoen erakustaldia: *Berriaren Tradizioa. Guggenheim Bildumako Maisu-Lanak 1945-1990* izenburupean, Bilboko Arte Ederretako Museoko BBK erakusgelan eta REKALDE erakustaretoan banatuta aurkeztuko da. Goian aipatu dugun gogo bizia hiru arrazoi funtsezkotan oinarritzen da.

Batetik, erakusketak berak osatzen duen kultur ekarpena. Erakusketa honek aukera emango baitio ikusleari —gogora dezagun aurrekoan laurogei milatik gora izan zirela ikusle— azken berrogeita hamar urteetako arte-sorkuntzaren erakusgarri benetan esanguratsua ezagutzeko, garai horretako artea denboran hurbilekoena izanagatik ere, ez baita hala ezagupenean ez eta, beharbada, ulermenean ere.

Topo egingo dugu hizkera artistiko harrigarriekin, oso bestelako ahotsak aurkituko ditugu, era askotako bilaketak, material eta kokagune berrien, ia xelebreen, erabilpena, komentziozkoarekin desafioan dabiltzan ahaleginak. Ez araudi, ez dotrina, ez teknika nagusirik gabe.

Berria tradizio bihurtzea eta berriro berriztatzea, beti originala izatea edo artearen bitartez komunikatzeko ahalmen handiagoa lortzea, horra berriaren giltzarri berriak.

Nolahani ere, ziur gara erakusketa hau ikustea kitzikagarri eta aberasgarri gertatuko dela.

Bigarren arrazoia Guggenheim Bilbao Proiektua gero eta hurbilago ikustean datza. Hilabete gutxi direla, Guggenheim Bilbao Museoa horixe baino ez zen, proiektua, alegia. Gaur egun, gorpuzten ari den errealitate dugu, bizkor garatzen eta ibai-ahoan, Salbeko zubiaren inguruan, ikusgarri duguna: Museoko eraikina bera, Frank Gehryk diseinatua, Bilbo berriaren birdiseinurako erreferentzia esanguratsua izango dena.

Museoa, beraz, gugandik gertuago dago, bai eskaintza artistikoari zein eraikuntza egoerari dagokiola.

Azkenik, Guggenheim Bilbao Museoa Bilbo metropolitanoa itxuratuko duten proiektu eta egitarau multzo zabalago baten parte da, eta atseginez hartzen dugu Guggenheim Bilbao Proiektua izatea garapen horren elementu lehenbiziko eta enblematikoena.

Nos cumple presentar el Catálogo de la segunda de las exposiciones organizada por el Consorcio del Proyecto Guggenheim Bilbao, dentro del programa de exposiciones temporales que se lleva a cabo con carácter previo a la inauguración del Museo Guggenheim Bilbao, a mediados del año 1997. Y lo hacemos con gran satisfacción.

En diciembre de 1993 abría al público, con el título *Obras Maestras Modernas de la Colección Guggenheim*, la primera de las exposiciones. El éxito fue realmente extraordinario. La muestra recogía, con singular precisión, la obra plástica que bajo la común definición de arte moderno se había producido en la primera mitad de este siglo.

Aquella primera exposición exigía un complemento que ahora se lleva a cabo: la muestra de las expresiones artísticas de los últimos cincuenta años, que bajo el título *La Tradición de lo Nuevo. Obras Maestras de la Colección Guggenheim 1945-1990*, se presenta conjuntamente en la Sala BBK del Museo de Bellas Artes de Bilbao y en la Sala de Exposiciones REKALDE. Nuestra satisfacción descansa en tres razones fundamentales:

La primera es la aportación cultural que la exposición, en sí misma, representa. La exposición va a permitir a los visitantes —queremos recordar que en la anterior ocasión fueron más de ochenta mil— tomar contacto con una muestra verdaderamente significativa de la creación artística de los últimos cincuenta años, que siendo para nosotros la más próxima en el tiempo, no lo es en el conocimiento y, posiblemente, tampoco en la comprensión.

Nos vamos a encontrar con lenguajes artísticos sorprendentes, con voces muy distintas, con búsquedas diversas, con el manejo de materiales y espacios nuevos, casi extravagantes, con alardes que desafían lo convencional. Sin una pauta, una doctrina o una técnica imperante.

Hacer tradición de lo nuevo y volver a innovar, ser siempre original o lograr una mayor capacidad de comunicación a través del arte son las claves nuevas de lo nuevo.

En todo caso, estamos seguros de que la visión de esta exposición va a resultar estimulante y enriquecedora.

La segunda es una razón de cercanía, de proximidad al Proyecto Guggenheim Bilbao. Hasta hace pocos meses el Museo Guggenheim Bilbao era eso, un proyecto. Hoy nos encontramos ya con una realidad emergente que se desarrolla con gran rapidez y que se expresa en la Ría, en torno al puente de La Salve: la realidad del edificio del Museo que, con el diseño de Frank Gehry, va a ser un referente muy representativo en el rediseño del nuevo Bilbao.

El Museo está así más cerca de nosotros, en su oferta artística y en su realidad constructiva.

Finalmente, el Museo Guggenheim Bilbao forma parte de un conjunto más amplio de proyectos y planes que van a

Ezin eskertu gabe utzi Alexander & Alexander, El Correo, Euskal Irrati Telebista, Ferrovial, Iberdrola, Construccciones LAUKI, Seguros U.A.P. eta URSSA-ri beraren ekarpen eskuzabala, *Berriaren Tradizioa. Guggenheim Bildumako Maisulanak, 1945-1990* erakusketa hau Bilbon aurkeztea ahalbideratu baitu.

configurar un nuevo Bilbao Metropolitano y nos complace que sea el Proyecto Guggenheim Bilbao el elemento primero y emblemático de este desarrollo.

No queremos dejar de agradecer a Alexander & Alexander, El Correo, Euskal Irrati Telebista, Ferrovial, Iberdrola, Construccciones LAUKI, Seguros U.A.P. y URSSA su generosa aportación que ha hecho posible la presentación en Bilbao de la exposición *La Tradición de lo Nuevo. Obras Maestras de la Colección Guggenheim, 1945-1990.*

Atsegin handiz aurkezten dugu *Berriaren tradizioa:* *Guggenheim bildumaren maisu-lanak 1945-1990*, Solomon R. Guggenheim Fundazioak Bilborako antolatutako erakusketa sail bateko bigarrena. Erakusketa sail hau einezkoa litzateke Bilboko Guggenheim Egitasmoaren Partzuergoaren ikuspegi eta lidergoa tartean ez balitz. Erakusketok Bilboko Guggenheim Museoaren aurkezpen gisa egiten dira, museoa 1977an irekiko baita, eta jada hasitako kultur elkartrukearen adierazpen garbia dira. Aurretikorik gabeko elkarlan izpiritu bati esker, *Berriaren tradizioa* REKALDE Erakustokian eta Bilboko Arte Ederretako Museoan banatuta aurkeztuko da.

XX. mendearen lehen erdiko arte europear eta estatubatuarra aztertuz, saileko lehen erakusketak, *Guggenheim bildumaren maisu-lan modernoak/Obras maestras modernas de la Colección Guggenheim* Guggenheim Museoko bilduma iraunkorreko lan garrantzitsuak bildu zituen. Handik urte t'erdi ingurura, honako erakusketak mende erdialdetik hona sortutako lanen hautaketa eskaintzen du, Amerika eta Europa artean izandako elkarrizketa artistikoa azpimarratuz. *Berriaren tradizioa* izeneko erakusketak berrikuntzaren bilaketa itxuraz amaigabearen ibilbidea marrazten du, adierazpen artistikoaren mugak zabalduz joan diren heinean.

Erakusketa irekitzen da berrogeiko eta berrogeita hamarreko hamarkadetako azken urteetako lanekin, New Yorkeko margolaritza eskolako adibide esanguratsuak barne: Willem de Kooning, Mark Rothko eta Jackson Pollock. Artista estatubatuarren hurrengo belaunaldiak espresionismo abstraktuaren oinarri intuitibo eta emotiboa gaitzetsi zuen, haren ordez ikus-kultura berez estatubatuarrean oinarritutako iruditeria hobetsiz, begibistakoa denez Robert Rauschenberg, Roy Lichtenstein eta Andy Warholen lanetan. *Berriaren tradizioa* erakusketaren atal garrantzizko bat hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko arteari dagokio, eta bereziki nabarmentzeko modukoak dira margo-lan eta eskultura minimalisten eta arte kontzeptualeko Panza Collection-a, Guggenheim Museoak berriki erosia.

Berriaren tradizioa erakusketaren alderdi azpimarragarria dira zenbait material didaktiko, adin guztietako ikasleen, helduen eta familien arreta erakartzeko asmoz sortuak. Irakasleentzako Gidaren bitartez, irakasleak ikasketa-planean erakusketa bisitatzea sar dezan erraztu nahi da. *Guggenheim bildumaren maisu-lan modernoak/Obras maestras modernas de la colección Guggenheim*-era egindako eskola-bisiten arrakasta kontutan hartuz, egitaraua berretsi eta zabaldu egingo da. Horrez gain, liburuska orokorra eta familientzako gida ere bisitari guztien esku izango dira.

Erakusketa honen inaugurazioak erdibidea markatzen du 1993ko urriaren 22an Bilboko Guggenheim Museoaren lehen harria jarri eta 1977ko udan irekiko den artean. Ziur naiz

Nos complace presentar *La Tradición de lo Nuevo:* *Obras Maestras de la Colección Guggenheim 1945-1990*, la segunda de una serie de exposiciones organizadas por la Solomon R. Guggenheim Foundation para su presentación en Bilbao. Dicha serie de exposiciones no sería posible sin la visión y liderazgo del Consorcio del Proyecto Guggenheim Bilbao. Estas exposiciones sirven de presentación al Museo Guggenheim Bilbao, que se inaugurará en 1997 y manifiestan el intercambio cultural que ya ha empezado. Con un espíritu de cooperación sin precedente, *La Tradición de lo Nuevo* se presentará conjuntamente en la Sala de Exposiciones REKALDE y el Museo de Bellas Artes de Bilbao.

Examinando el arte europeo y estadounidense de la primera mitad del siglo XX, la primera exposición de la serie, *Guggenheim Bildumaren Maisu-Lan Modernoak/Obras Maestras Modernas de la Colección Guggenheim*, destacó obras importantes de la colección permanente del Museo Guggenheim. Aproximadamente un año y medio más tarde, la presente exposición ofrece una selección de obras creadas desde mediados del siglo, con particular énfasis sobre el diálogo artístico que ha tenido lugar entre América y Europa. *La Tradición de lo Nuevo* traza el derrotero de una búsqueda aparentemente interminable de la innovación a medida que se han ido ampliando las fronteras de la expresión artística.

La exposición se inaugura con obras de los últimos años de la década de los cuarenta y los cincuenta incluyendo ejemplos significativos de la escuela de pintura de Nueva York tales como Willem de Kooning, Mark Rothko y Jackson Pollock. La siguiente generación de artistas estadounidenses rechazaron la base intuitiva y emotiva del expresionismo abstracto, favoreciendo a su vez una imaginería basada en una cultura visual específicamente estadounidense, como es evidente en las obras de Robert Rauschenberg, Roy Lichtenstein y Andy Warhol. Una parte importante de *La Tradición de lo Nuevo* se dedica al arte de los sesenta y de los setenta, destacando especialmente obras importantes de la Colección Panza de pinturas y esculturas minimalistas y de arte conceptual, adquirida recientemente por el Museo Guggenheim.

Varios materiales didácticos, concebidos para atraer la atención de estudiantes de todas las edades, adultos y familias, constituyen un aspecto importante de *La Tradición de lo Nuevo*. Con la Guía para profesores se pretende facilitar la incorporación de una visita a la exposición en su programa de estudios. Dada la popularidad y éxito considerables de las visitas escolares a la *Guggenheim Bildumaren Maisu-Lan Modernoak/Obras Maestras Modernas de la Colección Guggenheim*, tenemos el gusto de repetir y ampliar este programa. Además, un folleto general y material de sala para las familias están a la disposición de los visitantes a las galerías.

museo berria artearen behinbetiko instituzio eta hogeigarren mendeko arkitekturaren maisu-lan bilakatuko dela. New Yorkeko Bostgarren Etorbideko Solomon R. Guggenheim Museuma Frank Lloyd Wright-en karrerako lan enblematikoa den bezalaxe, Bilboko Guggenheim Museoa Frank Gehry-ren lan garrantzitsuenetakotzat joko da dudarik gabe.

Honako katalogo honek informazioa dakar Bilboko Guggenheim Museoaren eraikuntzaren oraingo egoeraz. Atsegin handiz aurkezten ditugu Aitor Ortiz euskal argazkilariaren lanen hautaketa, eraikuntza prozesuaren berri ematen duena. Argazkiok egitasmo zabalago baten parte dira, Bilboko Guggenheim Museo ikusgarriaren sorkuntza erakutsiko duena. Halaber, katalogoak Scott Gutterman-en saiakera bat dakar, Gehryren diseinu-prozesu berezia deskribatuz, eta Joshua M. White-ren argazki sail bat, arkitektoak erabilitako maketa eta ordenagailuz sortutako irudiak erakutsiz. Forma interkonektatu konplexu baina halere jariakorrak dakartzan diseinu hau Catia izeneko hiru dimentsiotako modelatu-erraminta ordenagailuz lagundutakoak erraztu du, hasiera batean industria aeroespazialerako garatu baitzen, gainazal kurboak zehaztasun handiz sortzeko.

Orobat, argitalpen honetan sarrera gisako saiakera bat dator, mende erdialdetik honako arte europear eta estatubatuarraren bilakaera aztertzen duena, Sam Hunter arte-historialari ezagunak idatzia. Hunter kontserbatzaile lanak egin zituen New Yorkeko Museum of Modern Art-en, arte-kritikoa izan zen The New York Times-en, Estatu Batuetako National Endowment for the Arts-aren aholku-batzordearen lehendakari eta artearen historiako katedratikoa Princeton-eko Unibertsitatean.

Honako erakusketa ahalbideratu du Solomon R. Guggenheim Fundazioaren eta Bilboko Guggenheim Egitasmoaren arteko itsasoz gaineko elkarlan berebizikoak. Ohore handia izan da niretzat artista, arte bildumatzaile eta artearen munduko beste partaide asko Bilbora ekartzeko aukera izatea, museo berriaren 1977ko inaugurazioaren atari gisa. Eusko Jaurlaritza ere hasita dago bere eginahalean, Bilboko Guggenheim Museoko bilduma iraunkorrerako lanak erosiz. Paraleloki, elkarrizketak hasi ditugu zenbait artistarekin, museoko galeiretarako testuingurura egokituako lanak enkargatzeko.

Bukatzeko, nire poza agertu nahi dut Guggenheim museoko maisu-lan hauek Bilborekin konpartitzean. Atsegin handia izan da niretzat eginbide honetan aritu diren lankide guztiekin elkarlanean aritzea, bereziki Bilboko Guggenheim Museoa sortzeko abagune historiko honetan.

La inauguración de esta exposición marca un punto medio entre la colocación de la primera piedra del Museo Guggenheim Bilbao el 22 de octubre de 1993, y de su inauguración en el verano del 1997. Estoy seguro de que el nuevo museo se convertirá en una de las instituciones definitivas para el arte y obras maestras de la arquitectura del siglo veintiuno. Al igual que el Solomon R. Guggenheim Museum de la Quinta Avenida de Nueva York representa la obra más emblemática de la carrera de Frank Lloyd Wright, el Museo Guggenheim Bilbao se considerará sin duda una de las obras más importantes de Frank Gehry.

El presente catálogo refleja el estado actual de la construcción del monumental Museo Guggenheim Bilbao. Nos es grato presentar una selección de las fotografías del fotógrafo vasco Aitor Ortiz que documentan el proceso de edificación. Dichas fotografías forman parte de un proyecto más amplio para relatar la creación del espectacular Museo Guggenheim Bilbao. Asimismo, el catálogo incluye un ensayo de Scott Gutterman en el que se describe el proceso único de diseño de Gehry y una serie de fotografías de Joshua M. White que ilustra las maquetas e imágenes generadas por ordenador utilizadas por el arquitecto. Dicho diseño que incluye complejas y, sin embargo, fluidas formas conectadas, se ha facilitado por la herramienta de modelado en tres dimensiones asistido por ordenador, conocido como Catia, que se desarrolló en un principio para la industria aeroespacial para trazar superficies curvas con un alto grado de precisión.

Asimismo nos complace incluir en esta publicación un ensayo introductorio que explora la evolución del arte europeo y estadounidense desde mediados del siglo, del conocido historiador de arte Sam Hunter. Hunter ha trabajado como conservador en el Museum of Modern Art de Nueva York, crítico de arte del periódico *The New York Times*, presidente del comité asesor del National Endowment for the Arts de Estados Unidos, y catedrático de historia del arte en la Universidad de Princeton.

Esta exposición ha sido posible gracias a la extraordinaria colaboración transatlántica entre la Solomon R. Guggenheim Foundation y el Consorcio del Proyecto Guggenheim Bilbao. Me honra haber tenido la oportunidad de traer a numerosos artistas, coleccionistas de arte y otros miembros del mundo del arte a Bilbao con antelación a la inauguración en 1997 del nuevo museo.

Para terminar, estoy encantado de que podamos compartir estas obras maestras de la colección del Museo Guggenheim con el País Vasco. Ha sido un placer para mí trabajar con todos aquellos que han colaborado en esta exposición, especialmente en este momento histórico del proceso de creación del Museo Guggenheim Bilbao.

Guggenheim Bilbao Museoko Irudiak

Datozten orrialdeen irudien deskribapena

16-17. orrialdeak
Bilboko Guggenheim Museoaren kokalekuaren airetiko ikuspegia, Nerbioi ibaiaren ertzean, Salbeko zubiaren ondoan, 1991eko eraikuntza-hasiera baino lehenago.

18-19. orrialdeak
Frank Gehry lanean, Californiako Santa Mónican duen estudioan.

20-25. orrialdeak
Bilboko Guggenheim Museoaren behin-betiko maketaren hiru ikuspegi. Frank O. Gehry eta Elkartuek 1995eko martxoan egina. Joshua M. White-ren argazkiak.

26-27. orrialdeak
Bilboko Guggenheim Museoko zenbait egitura-guneren irudi hirudimensionalak, ordenagailuz sortuak.

28-31. orrialdeak
Guggenheim Bilbao Museoko lanak, altzairuzko egitura, hormigoizko hormak eta Salbeko zubipean hedaturiko korridore handiaren estalkiko arkuak agerian. Aitor Ortiz-en argazkiak.

Imágenes del Museo Guggenheim Bilbao

Descripción de imágenes de las siguientes páginas

Páginas 16-17
Vista aérea del emplazamiento del Museo Guggenheim Bilbao, a la orilla del Nervión junto al Puente de la Salve antes del inicio de su construcción en 1991.

Páginas 18-19
Frank Gehry trabajando en su estudio de Santa Mónica, California.

Páginas 20-25
Tres vistas de la maqueta final del Museo Guggenheim Bilbao, marzo de 1995, de Frank O. Gehry y Asociados. Fotografías de Joshua M. White.

Páginas 26-27
Imágenes tridimensionales generadas por ordenador de varios elementos estructurales del Museo Guggenheim Bilbao.

Páginas 28-31
Obras del Museo Guggenheim Bilbao, que muestran la estructura de acero, las paredes de hormigón y los arcos de la cubierta de la gran galería que se extiende bajo el Puente de La Salve. Fotografías de Aitor Ortiz.

B
E

GUGGENHEIM MUSEUM
BILBAO, SPAIN



FRANK GEHRY & ASSOC.

GUGGENHEIM MUSEUM
BILBAO, SPAIN



FRANK GEHRY & ASSOC.

GUGGENHEIM MUSEUM
BILBAO, SPAIN



FRANK GEHRY & ASSOC.

GUGGENHEIM MUSEUM
BILBAO, SPAIN



FRANK GEHRY & ASSOC.





Guggenheim Bilbao Museoa: Etorkizuneko irudia Euskadirentzat

Scott Gutterman

Museo Guggenheim Bilbao: Una imagen de futuro para Euskadi

Scott Gutterman

Badira, alde batetik, diseinu "puruak" erakartzen dituen arkitektoak, toki eta espazioko mugen zein aurrekontuen ardurarik gabeak. Eta beste aldetik, badira munduarekiko lotura maite dutenak ere, eraikitako ingurugiroan gauzatzen den estilo konfliktuaren kaosean armonia aurkitzen dutenak. Frank Gehry-k azken kategoria horretakoa izan ezezik, definitu ere egiten du. Pariseko American Center-etik hasita Santa Monicako, California, bere etxea arte egin dituen proiektuetan, bere auzokideekin —batzuetan nabarmenki eta beti zuhurtziaz— mintzatzen diren eraikuntzak sortu ditu.

Beraz, ezin esan hiperbolea besterik ez zela, Gehry-k Thomas Krens-i, Solomon R. Guggenheim Fundazioko zuzendariari gutun batean honako hau idatzi zionean: "Hiri handi bateko biztanleri-gunea arte modernoari dedikaturiko leku batekin lotzen duen zubi handi batek zeharkaturiko ibai nabigagarri baten bihurgunean egotea da paradisuaz nik dudan ideia". Nazioarteko diseinu lehiaketa batean parte hartu ondoren, zeinean Tokioko Arata Isozaki-k eta Vienako Coop Himmelblau-k ere proiektu bana aurkeztu baitzuten, museoa egiteko agindua adjudikatu zitzaion. Gehryk aurkeztutako proposamenak "proiektuaren posibilitateak erarik zirraratsuenean antzematen zituela" erabaki zen, eta Santa Monicako arkitektoari Nerbioi ibaiaren ertzeko bere paradisuaren saria eman zitzaion, Bilbo hirian.

Euskadiko Instituzioek Gehryren proiektua hautatzearekin batera, Guggenheim Fundazioak diseinu berritzaile, batzuetan ikonoklastarekin zuen konpromezua berritu egin zuen. 1958an, Frank Lloyd Wright-ek "karratuaren tirania" desafiatu zuen, Manhattan-eko kale zuzen-zuzenen sistemaren erdian Solomon R. Guggenheim Museoaren forma kurbatu eta jarraikorra ezarriz. Aurrikusitakoaren arabera, 1997rako Gehryk beste efektu-kolpe ikusgarria lortua izango du: Bilboko ardatz/etorbide handietariko bat ordenari egindako ora klasikoaren arabera bukatu eman beharrean, Gehryk halako "antimonumentu" bat eraikitzea nahiago izan du, hots, industri-portuko bizimodua duen hiriari hondakinezko omenaldi latza eskaintzea.

Arkitektuaren egitamuak espazio asimetrikoez osaturiko kokapen irregularra du. Museoko sarrera nagusira joateko, mailakatutako arrapala luze batean behera egin behar da, tradizioarekin apurtzeko lehen pausua, eta ibairantz behera doan hiriko maldari egindako erreferentzia. Sarrera igarota, atari ikaragarria dugu Wrighten hutsune masiboaren itsasoz bestaldeko erreferentzia. Gehryren ataria arkitektoak "lorea" deitutakoaz osatuta dago: indarraren aierupena dakarren metalezko azalez egindako formen metaketa loratua; bitartean, argizuloak eta "materiaz gabeturiko" formak arintasunaren keinu dira.

Existen arquitectos a los que les gusta el diseño "puro", sin limitaciones de lugar, espacio o presupuesto. Y existen otros a los que les gusta el contacto con el mundo, quienes encuentran la armonía en el caos del conflicto de estilos que constituyen el entorno edificado. Frank Gehry no solo encaja en esta última categoría sino que prácticamente la define. En proyectos que van desde el American Center de París a su propio domicilio de Santa Monica, California, ha creado edificios que conversan —a veces de forma insolente, siempre de modo inteligente— con sus vecinos.

Por lo tanto no se trataba meramente de una hipérbole cuando Gehry escribió lo siguiente en una carta dirigida a Thomas Krens, Director de la Solomon R. Guggenheim Foundation: "Estar en la curva de un río industrial cruzado por un gran puente que conecta el tejido urbano de una ciudad densamente poblada a la orilla del río con un lugar dedicado al arte moderno es mi idea de un paraíso". Se le adjudicó el encargo tras su participación en un concurso internacional de diseño, para el que también se solicitaron proyectos a Arata Isozaki, de Tokio y a la firma de Viena Coop Himmelblau. Se consideró que la propuesta presentado por Gehry "captaba de la forma más emocionante las posibilidades del proyecto", y al arquitecto que tiene su estudio en Santa Monica, se le concedió su paraíso a la orilla del río Nervión en la ciudad de Bilbao.

Al elegir el proyecto de Gehry, las Instituciones Vascas renovaban el compromiso de la Fundación Guggenheim con el diseño innovador, incluso iconoclasta. En 1958, Frank Lloyd Wright había desafiado a la "tiranía del cuadrado" colocando el espacio curvo y continuo del Solomon R. Guggenheim Museum justo en el centro del sistema rectilíneo de las calles de Manhattan. Si todo sigue según lo previsto, para 1997 Gehry habrá dado otro golpe de efecto espectacular; en lugar de terminar una de las grandes avenidas/ejes de Bilbao con una oda clásica al orden, Gehry ha elegido crear en su lugar una especie de "antimonumento", un homenaje rudo y deshilvanado a la vida de la ciudad como puerto industrial.

Su proyecto ocupa un emplazamiento irregular que consta de diversos espacios de forma asimétrica. Se accede a la entrada principal del museo descendiendo por una larga rampa escalonada, una primera ruptura con la tradición así como una referencia a la superficie inclinada del terreno que baja hacia el río. Cruzada la entrada hay un atrio monumental, una referencia transatlántica al vacío masivo de Wright. El atrio de Gehry está rematado por lo que él llama "la flor", una masa floreciente de formas cuya piel de metal evoca una sensación de fuerza, mientras que los lucernarios y su forma "desmaterializada" sugieren ingravidez.

Más allá del atrio hay tres niveles de galerías coronadas por lucernarios. Dichas galerías alojarán la colección permanente

Ataritik harantzago hiru galeria maila daude, goialdeetan argizuloak dituztelarik. Bertan gordeko da XX. mendeko arte-bilduma iraunkorra. L-eiteko bi galeria gaur egungo artisten lanei dedikatuko zaizkie, eta itsasontzi-eiteko espazio luze batek tamaina handiko eskulturak eta erakusketa bereziak eskainiko ditu. Beste zerbitzu batzuen artean, liburudenda, areto nagusia eta jatetxea izango ditu. Ataritik, ibaiaren ertzean kokatuta dagoen urmahelera daraman bidezidor zuzena hartu ahal izango dute bisitariek. Museoaren ekialdeko muturrean, Gehryk "irakurle garaia" deitzen duena dago, egitura garai eta autonomoa; arkitektoaren arabera: "ez da espazio funtzionala izango, baina hirigintzari begira garrantzi handikoa izango da". Gehryren proiektu guztiekin gertatu ohi denez, formak zentzu eskulturala zein praktikoa emateko moduan lotuta daude.

Proiektuaren inspirazio-bideak iturri batzuetatik etorri dira; Gehryk Fritz Lang-en *Metropolis* (1926) filma eta harrobi bateko horma baldarki landuak aipatzen ditu. Azkenik, hala ere, lekuaren irregulartasunek espazio exzentriko batzuk, eta museoko aldeen arteko ikusmen-aukera harrigarriro argiak sortzea bideratu zuten. Gezurra badirudi ere, kokapen hori proiektua aurreratuta zegoela finkatu zen. Hasiera batean proposatutako kokapena Bilboko Alhondiga izan bazen ere, lehiaketan parte hartu zuten arkitekto guztien iritziz ardo-biltegi zaharraren ezaugarri arkitektonikoak errespetatzea, eta arkitektura aldetik eredugarria, Museoarena bezalako erabileratik ondorioztatzen diren eskakizun funtzionalei erantzuteko gai, izan nahi zuen eraikuntza bat egitea bateraezinak ziren. Horregatik, Euskadiko Instituzioek urrats ausartagoa ematea erabaki zuten, eraikuntza berri honekin Abando-Ibarra industri eta portu-alderdi izandakoa hirigintza aldetik berreskuratzeko. Ideia berri hori Gehryren begi-sentsibilitatearekin bat etorri zen. Arkitekto askok kokapenaren ekialdeko trafiko handiko zubiaren aurrean atzera egingo, edo zubiaren kontrako hesia eraikiko, zuten arren, Gehryk integratu egin zuen; mumentu batean zubia planeatutako egitura eskulturalean sartzea proposatu zuen.

Gehryren kezkarik nagusiena bere diseinua Bilbo hiriarekin lotzea da, gotorleku kulturala izatera mugatu beharrean. Ondorioz, harriz eta metalez estalitako eraikuntza, bere perfil oker, makur eta nabarmenarekin, museoetan inposatutako arauetatik urrundu egiten da erabat, zuzen-zuzenean jauregi neoklasikoetatik Bauhaus-kutxetara eta are urrunagorako bidean abiatuz. Arkitektoaren adierazpenei jarraiki, bere diseinuaren oinarria "izan zen portua eta egun den hiria" izanik, Gehryk Bilboko iragan industrialari eta industriondoko etorkizunari omenaldia egiten dio, bien abstrakzioa eginez. Diseinuak hiri-bizitzaren bizitasun nahasia jasotzen du; energia, beroa, eta zarata irradiatzen duela dirudi. Iradokitzen

de arte del siglo XX. Dos galerías en forma de "L" se reservan para las obras de artistas contemporáneos, mientras que un espacio largo y con forma de barco alojará esculturas de gran tamaño y exposiciones especiales. Entre otros servicios se incluyen una librería, un auditorio y un restaurante. Desde el atrio, los visitantes podrán dirigirse en línea recta hacia el estanque situado a la orilla del río. En el extremo más oriental del museo, se halla lo que Gehry llama el "alto lector", una estructura elevada y autónoma que, según afirma el arquitecto, "no será un espacio funcional, pero tendrá una importancia urbanística crucial". Al igual que todos los proyectos de Gehry, todas las formas encajan en un sentido práctico y escultórico.

Las fuentes de inspiración del proyecto han sido varias; Gehry cita, entre otras, la película *Metrópolis* de Fritz Lang (1926) y las toscas superficies labradas de una cantera. Finalmente, sin embargo, fueron las irregularidades del emplazamiento lo que permitió la creación de varios espacios excéntricos, así como las vistas panorámicas, sorprendentemente claras, entre las distintas partes del museo. Irónicamente, dicho emplazamiento se encontró en una fase adelantada del proyecto. Si bien el lugar inicialmente propuesto fue la antigua Alhóndiga de Bilbao, todos los arquitectos participantes en el concurso consideraron incompatible el respeto a las características arquitectónicas del antiguo almacén de vinos con la realización de un edificio emblemático desde el punto de vista arquitectónico, capaz de dar respuesta a las elevadas exigencias funcionales derivadas de su uso como un museo. Por ello, las Instituciones Vascas decidieron dar un paso más audaz iniciando con este edificio la recuperación urbanística de la antigua zona industrial y portuaria de Abando-Ibarra. Esta nueva idea encajó perfectamente en la sensibilidad visual de Gehry. Mientras que muchos arquitectos se hubieran asustado por el puente tan densamente transitado que rodea el borde este del emplazamiento, o hubiesen levantado barreras contra el mismo, Gehry lo incorporó a su diseño; en efecto, en un momento dado, propuso la incorporación del puente en la estructura escultórica en ese extremo del emplazamiento.

La preocupación principal de Gehry es la conexión de su diseño con la ciudad de Bilbao, en lugar de apartarlo como una fortaleza cultural. Por consiguiente, su edificio revestido de piedra y metal, con su perfil torcido, curvo y saliente, rompe con una gran cantidad de normas museísticas, que van desde los palacios neoclásicos a las cajas de Bauhaus y diseños posteriores. Al basar su diseño, como apunta el arquitecto, "en el puerto que fue y la ciudad que es", Gehry consigue respetar el pasado industrial y el futuro postindustrial de Bilbao, reduciendo ambas consignas a ideas abstractas. Su diseño abarca la vida de la ciudad en su vitalidad desordenada; parece

du, baita ere, funtzionalaren poesia, ez ondo diseinatutako teontzian jasotzen den antzera, dio berak, baizik eta lanean diharduen portu-inguruaren har-eta-eman zaratatsu eta inperfektuan gertatzen den gisara.

Museoa egiteko proiektua, mundu-mailako arkitektoei Bilbok oraintsu egin dizkien agindu garrantzitsuetatik bat da: urte honen bukaeran irekiko den sistema metropolitanoa, zeinaren geltokiak Norman Foster arkitektoaren eskutik joan diren; Bilboko aireportuko terminal berria, Santiago Calatravak diseinatua; Biltzar eta Musika Etxea, Federico Soriano-rena, aurten bertan egiten hasiko direna; edo geltoki intermodala, zeinaren hasierako proiektua James Stirling-ena izan zen, eta Michael Wilford burutzen ari den; hori guztia Abando-Ibarra alderdirako hirigintza-planarekin batera, Cesar Pelli-ren esanetara. Proiektu horiekin guztiekin, ordea, Gehryren kezka da hiriak bere indibidualtasuna gal lezakeela neurri batean, portualdea gehiegi apainduz gero, "Potomac Parkearen sindromea" deitzen duenaren biktima bihurtuz. Hauxe dio arkitektoak: "Ibaiak berezko izaera industriala du bere baitan. Bertan den energiaren gainean eraikitzea zoragarria dateke, baina okerra dirudi nolabaiteko gauza motel bihurtzeak".

Proiektu eta kokapenari erantzunez, Gehryren diseinua garatuz joan da jaiotzetik bertatik. Baina Gehryren ustez horrelako aldaketak, detaileari adi egoteak eskatzen duen denbora eta arretaren ondorio naturalak dira. "Barrutik kanpora diseinatzeko gai izan garen honetan", dio berak, "eskularrua bailitzan egokitzen da dena". Gelak artelan konkretuak gordetzeko egokitu ez dituen arren, Gehryk artista, beren lan-metodo, eta beroriek eskatzen dituzten espazio-motekiko duen adeitasuna ezaguna da. Museoan kokatzeko propio egingo diren obrez interesatu da: "Bilbo hiria maite duten artista askorekin hitz egin dut horrelako tokiok duten gogortasuna dela eta", esan du arkitektoak. "Era horretako inguru batean arte-museoa eraikitzea zoragarria da".

irradiar energía, calor y ruido. Asimismo sugiere la poesía inesperada de lo funcional, no como se plasma en, digamos, una tetera bien diseñada, sino como se muestra en el "toma y daca" imperfecto y ruidoso de la zona portuaria.

El proyecto del museo representa uno de los encargos importantes que se han adjudicado recientemente por Bilbao a arquitectos de renombre internacional: de próxima inauguración, a finales de este año, el sistema de ferrocarril metropolitano, cuyas estaciones han sido diseñadas por el arquitecto Norman Foster, la nueva terminal del aeropuerto de Bilbao diseñada por Santiago Calatrava y el Palacio de Congresos y de la Música de Federico Soriano, cuyas obras de ejecución darán comienzo este mismo año, o la estación intermodal cuyo proyecto inicial fue diseñado por James Stirling y cuyo proyecto final está siendo llevado a cabo por Michael Wilford, todo ello conjuntamente con un plan de ordenación urbana para la zona de Abando-Ibarra, siguiendo las directrices de Cesar Pelli. Con todos estos proyectos, sin embargo, Gehry está preocupado porque la individualidad de la ciudad puede verse mermada por el excesivo embellecimiento de la zona portuaria, siendo víctima de lo que él llama el "Síndrome del Parque del Potomac". El arquitecto explica: "El río se utiliza para fines industriales. Utilizar la energía que ya existe allí sería fantástico, pero sería un error convertirlo en algo muy soso".

Como respuesta al proyecto y al emplazamiento, el diseño de Gehry ha evolucionado de forma continua desde su concepto inicial. Pero para el arquitecto tales cambios representan una consecuencia natural tanto del tiempo como de la atención al detalle. "Ya que hemos podido diseñarlo desde dentro hacia fuera", afirma el arquitecto, "todo el diseño encaja como un guante". Aunque no ha adecuado las salas para obras concretas de arte, la simpatía que Gehry siente por los artistas, sus métodos de trabajo y los espacios que requieren, es muy conocida. Se ha interesado por la creación de obras realizadas específicamente para su emplazamiento en el museo: "He hablado con muchos artistas a los que les gusta mucho Bilbao por el vigor de estos lugares", apunta Gehry. "Crear un museo de arte en esa clase de entorno es maravilloso".

Berriaren Tradizioa

Sam Hunter

La Tradición de lo Nuevo

Sam Hunter

Jackson Pollock bere lantokian, Hans Namuth-en argazkian.

Jackson Pollock fotografiado en su estudio por Hans Namuth.

Bigarren Mundu Gerraren bukaeraren osteko urteek
Europa eta Amerikako arte abanguardistaren ia aurrekaririk gabeko zabalkuntza ezagutu zuten, eta asmakuntza freskagarriko oldar horrek mendearen bukaerarainoko garapen gero eta azkarragoan, gero eta konplexu eta pluralistagoan jarraituko zioten mugimenduen segida dinamikorako oinarriak ezarri zituen azkenik.

Pintore-belaunaldi berri baten agerraldiarekin Parisen, II. Mundu Gerra amaitu eta gutxira, horien artean Jean Fautrier, Pierre Soulages, Hans Hartung, Wols eta eragin handiko Jean Dubuffet, eta Europako iparraldean CoBrA izeneko pintore espresionista talde baten sorrerarekin, estilo figuratibo eta ez-figuratiboen arteko dikotomia zaharra berez desagertu zen, garai beretsuan Amerikan gertatzen ari zen bezala. Kritika esistentzialistaren erretorikatik, eta gerraosteko subjektibismorako joeratik, abstrakzio eta figurazio espresionista mota desberdinak sortu ziren. Georges Mathieu eta Gérard Schneider bezalako artistek Parisen, eta horien parekoek Italia, Espainia, Alemania eta Britainia Handian, marrazketa distiratsu sukartsuari, eta zeinu kaligrafiko zabalei ekin zieten pinturaren arloan; horri laster jarriko zioten izena kritikariek: *l'art informel* edo *tachisme*, alde batetik keinuzko pintzelkadengatik eta, bestetik, ustegabeko "lohidura" edo "zirriborroen" artea izateagatik.

Laster beste aldagai estilistiko nabarmen bat sortuko zen Europako artean, pintura abstraktu informalaren berezkotasuna enpaste gogor batetik (*matière*) lortutako testura eta kolore aberatsekin ezkondu zenean, Nicolas de Stael frantziar, Antoni Tàpies espainiar eta Alberto Burri italiar artisten eskutik. Fautrier, Dubuffet eta Tàpies artistek ekarri zituzten eragin erabakiorrak erliebe-antzeko pintura-gainazalen garapenerako, hain zuzen ere Lawrence Alloway zenduak, arte kritikari eta Guggenheim museoko arduradunak, materiazko pintura gisa egokiro deskribatu zuena.

Garai berean, espresionismo abstraktua, edo New Yorkeko Eskola sortu zen, 1940ko urteen erdialdean, berezko faktore amerikar batzuei erantzunez, eta urte batzuen buruan bide berri eta emankorretatik abiatu ziren estiloek berrinterpretatu eta zuzendua izan zen; horren ondorioz, printzipio zein metodo aldetik erabat kontrakoak ziren mugimendu-segida baten iturburu bilakatu zen: pop artea, minimalismoa, kontzeptualismoa, neo-espresionismoa eta, zentzurik zabalenean hamarkadak aurrera zihoazen neurrian, gaur egungo estetika posmodernorik askeena.

Erakusketa honetako obrarik zaharrenak 1940ko azken urteetakoak dira, abstrakzio espresionistaren gailurra Europan, eta New Yorkeko Eskolaren lehen loraldiaren garaia; eta 1980ko eta 1990ko urteetako aldaketa estetikoen agerpenak aztertzen dira gainontzeko obretan. Gerraren amaierako garaiak

Los años posteriores al final de la Segunda Guerra
Mundial fueron testigos de una profusión de arte vanguardista europeo y americano prácticamente sin precedentes. Y fue este torrente de invención fresca el que finalmente sentó las bases para la dinámica sucesión de movimientos que continuaría hasta el final del siglo en una evolución cada vez más rápida, compleja y pluralista.

Con el advenimiento público de una nueva generación de pintores en París poco después de la Segunda Guerra Mundial, entre los que se incluían Jean Fautrier, Pierre Soulages, Hans Hartung, Wols y el influyente Jean Dubuffet, y un grupo de pintores expresionistas del norte de Europa que se denominaba a sí mismo CoBrA, la vieja dicotomía entre los estilos figurativo y no figurativo se resolvió, al igual que estaba sucediendo durante el mismo periodo en Estados Unidos. De la retórica de la crítica existencialista y del talante de subjetivismo de la posguerra, surgieron varios tipos diferentes de abstracción y figuración expresionistas. Artistas como Georges Mathieu y Gérard Schneider en París, y sus colegas en Italia, España, Gran Bretaña y Alemania investigaron una ejecución gráfica brillante y febril además de amplios signos caligráficos en la pintura, que los críticos pronto denominaron *l'art informel*, o *tachisme*, refiriéndose tanto a las pinceladas gestuales como a un arte de "manchas" o "borrones" accidentalistas.

Poco tiempo después, otra variante estilística significativa irrumpió en el arte europeo cuando a la espontaneidad de la pintura abstracta informal se le unió la rica textura y color obtenidos a partir de un espeso empaste (*matière*) en artistas como Nicolas de Stael en Francia, Antoni Tàpies en España y Alberto Burri en Italia. Fueron especialmente Fautrier, Dubuffet y Tàpies los que ejercieron las influencias decisivas en el desarrollo de superficies de pintura que dan la sensación de relieve, una técnica que el difunto Lawrence Alloway, crítico de arte y antiguo director del Guggenheim Museum, calificó muy apropiadamente como pintura matérica.

Simultáneamente, el expresionismo abstracto, o la Escuela de Nueva York, surgió a mitad de la década de los cuarenta como reacción a una serie de circunstancias típicamente norteamericanas. Después de unos cuantos años, el expresionismo abstracto fue reinterpretado y dirigido hacia nuevos y fecundos canales mediante estilos que, a su vez, dieron lugar rápidamente a movimientos tan recalcitrantemente opuestos en sus principios y métodos como el arte pop, el minimalismo, el conceptualismo, el neo-expresionismo y en un sentido más amplio, con el rápido transcurrir de las décadas, a la desinhibida estética posmoderna actual.

Esta exposición comienza con obras de los últimos años de la década de los cuarenta, cuando el expresionismo abstracto estaba en pleno apogeo en Europa y la Escuela de Nueva York

produzitu zituen Harold Rosenberg-en larrialdi esistentzialista eta autodefinizioari buruzko ideia emankorrak, nagusiki arte abstraktuaren bitartez; eta Clement Greenberg-en kritika formalista zorrotzagoarekin batera, Jackson Pollock eta David Smith bultzatzeko zuen misionari-ardurak izugarri areagotua. Ikuspuntu horien elkarketak lagundu egin zuen XIX. mendearen bukaeratik ahulduta zegoen abangoardiako kultura amerikarra definitzen eta jendaurrean ezagutarazten.

"Irudipena dut, baina irudipena besterik ez da, mendebaldeko artearen berehalako etorkizuna, etorkizunik izango badu, herri honetan egindakoaren baitan dagoela", harro idatzi zuen Greenbergek 1948an; iritzi izugarria gaurko irizpide popularrak kontutan harturik, baina laster frogatuko zen oso zuzena zela. "Guretzat egoera iluna izanda ere, pintura amerikarrak bere alderdirik aurreratuenetan, hau da, pintura amerikar abstraktua, azken urteotan frogatua du han-hemenka Frantzian edo Britainia Handian parekorik ez duen edukien freskotasunerako gaitasuna". (1)

Amerikar artista aurrerakoiak New Yorken elkartu ziren Depresio Handiaren garaian, eta beren helburu eta ideiak amankomunean jarri zituzten, Art Students League-ko estetika atzeratuarekin, eta Parisko eta atzerriko beste artegunetako argitarapen inspiragarri aurrerakoiekin batera. Artistarik arrakastatsuenek estilo sozialki kontzientetan lan egin zuten, askotan Franklin Roosevelt lehendakariaren Works Progress Administration delakoaren eta kulturari laguntzeko beste gobernu-programen laguntzaz. Thomas Hart Benton erregionalistarekin hasita, Ben Shahn sozialistaraino, finkatutako artistek eliteko estetika modernista europarrenganako destaina zeukaten amankomunean, eta modernismo europarrari gorroto zion gorakako arte nazionalistak eta mezu bisual xenofobikoek baldintzaturiko masen mesederako —edo, behintzat, ez kalterako— izan zitekeen estilo ilustrazionalarenganako hobespena. (2)

A la par que Ad Reinhardt y Clyfford Still, Mark Rothko fue un expresionista abstracto que desechó la línea y dibujo utilizados por Willem de Kooning, Jackson Pollock y otros, en favor de los campos de color. Para los inicios de la década de los años cincuenta, había logrado el formato que ordenaría el resto de su obra durante su vida: rectángulos apilados sobre el suelo. En la obra *Sin Título (#18)*, rectángulos de color horizontales, sus extremos suavizados por el toque del pincel del artista, están suspendidos sobre un campo morado. Los hermosos colores se hallan a mitad de camino entre los brillantes naranjas, fríos azules y amarillos radiantes de las obras de Rothko de los cincuenta y su paleta cada vez más oscura que ya en su último período desembocaría en los negros y grises de la mayoría de sus últimas obras, realizadas poco antes de su suicidio.

Se ha dicho que, dada la escasez de otras características formales, el color en una *Color-Field Painting* permanece como un indicador celestial, que señala vagamente hacia lo no verbal y lo sublime. Esta noción se halla a la vez encarnada y desmentida por la obra de Rothko. Mientras que el artista intentaba afirmar su naturaleza abstracta, se sentía igualmente inflexible acerca de su contenido expresivo. La pintura, decía, "es una comunicación a otra persona acerca del mundo". Rothko veía el mundo en términos de esperanzas humanas que eternamente están siendo reprimidas por la desesperación y las aspiraciones oscurecidas para siempre por la angustia, ideas que él intentaba que sus pinturas pudieran expresar y que

Jaiotza, bere bizitzaren ikuspegitik gertuen zegoen liburuaren irakurketak baieztatu zituen.

Bere karreran zehar, Rothkok ezin izan zituen bateratu artista gisa izan zuen arrakasta eta ezarritako ordena eta burgesiaren kontrako gaitzondoa. New Yorkeko The Four Seasons goi-mailako jatetxerako agindua (azkenean uko egin ziona), jatetxeko bezero dirudunei dispepsia eragin nahian planeatu zen. Hala eta guztiz ere, Meniltar familiaren laguntzaz Houston-eko kaperan egin zituen murelek adinako atseginik ez dio beste ezein proiektuk eman. 1958an, Rothko, Solomon R. Guggenheim Museoko Nazioarteko Sariketako txapeldun izendatu zuten. Sariari uko egin zion gaitzesten zuelako eta, "ohorea gizabanakoaren bizitzako lana adierazten duenagatik besterik eman daitekeen —pinturak lehiatzeko plazara erakartzeko beharrik gabe—" egunaren aurrerapen gisa. Eta hala ere, hamar urte beranduago, plaza horren barruan bere lanak izango zuen garrantziaren arduraz, artistak Mark Rothko Fundazioa sortu zuen, 1986an *Titulurik gabea (#18)* museoari oparitu ziona.
—I. S.

10. Adolph Gottlieb, *Lainoa*, 1961

1941. urtearen inguruan, Adolph Gottliebek bere lehen piktografiak pintatu zituen —sare irregularretan banatutako konposizioak, gelaune bakoitza irudi arketipiko, mitiko eta sinbolikoez beteta—. Gai unibertsalak lantzen jarraitzeko, 1951ean bi alde horizontaletan banatutako irudimenezko paisaiak sortzen hasi zen: zerua, hodeiertzaren gainean flotatzen ari diren forma batzuekin; eta lurra edo itsasoa azpian. Elementu horiek soildu egin ziren 1957tik 1970eko lehen urteetara egin zituen *Burst Paintings* (eztanda) izeneko pinturetan, *Lainoa* delakoan adibidez. Horietan, disko karakteristiko bat flotatzen ari da masa kaligrafiko lehergarri baten gainean. Mihisea goi eta behe aldetan banatzea konstante bihurtu zen Burst pinturetan, artistari goiko eta beheko elementuen arteko harremanen aldaera berezi kontaezinak ikertzeko aukera emanez.

Gottlieben kolore harmonia bereizgarriak, iruditeriaren kemena eta konposizioaren bertikaltasun indartsua *Lainoa* izeneko lanean soildu eta bildu dira. Tituluak adierazten duenez, zuri eta gris argitik ia beltzera doazen ñabardura finez osaturik dago paleta. Forma zirkular zuri bat erdikusten da inguratzen duen auraren barruan; sendotasunez pintaturiko eite ilun dinamiko baten gainean flotatzen ari da. *Lainoa* lanak agerpen nagusia hartzen du Gottlieben esanahi-murrizketaren bidez.
—V. E. B.

fueron confirmadas por la lectura de *El Origen de la Tragedia*, de Friedrich Nietzsche, libro que según él se acercaba con mucho a su punto de vista sobre la vida.

En su carrera, Rothko fue incapaz de reconciliar su éxito como artista con su resentimiento por el sistema establecido y la burguesía. El encargo del restaurante elitista Four Seasons, en Nueva York (que al final rechazó), fue proyectado con la intención de dificultar a sus clientes adinerados la digestión. Sin embargo, ningún proyecto le resultó tan placentero como la creación de los murales para una capilla de Houston, patrocinada por la señorial familia Menil. En 1958 Rothko fue designado vencedor nacional del premio internacional del museo Solomon R. Guggenheim. Rechazó el premio por aversión y anticipándose al día "en que los honores puedan ser concedidos solamente por el significado del trabajo de la vida de un hombre sin atraer a los cuadros al terreno de lo competitivo". Y no obstante, diez años más tarde, pensando en la reputación de sus obras dentro de este terreno, el artista fundó la Fundación Mark Rothko, que en 1986 donaría la obra *Sin Título (#18)* a este museo.
—I. S.

10. Adolph Gottlieb, *Niebla*, 1961

Para 1941, Adolph Gottlieb había pintado sus primeras pictografías —composiciones divididas en cuadrículas irregulares, en cada una de cuyos compartimentos se apreciaban imágenes arquetípicas, simbólicas y míticas. Siguiendo con la expresión de temas universales, en 1951 empezó a crear paisajes imaginarios en los que el campo se divide en dos zonas horizontales: el cielo, con diversas formas flotando por encima del horizonte y por debajo paisaje o mar. Estos elementos se simplificaron en las *Burst Paintings* (estallidos), como la obra *Niebla*, realizada desde 1957 hasta principios de los años setenta. En ellas, un disco queda característicamente suspendido sobre una masa caligráfica y explosiva. Esta división del lienzo en dos segmentos fue una constante en todas las pinturas *Burst*, permitiendo al artista explorar infinitas variaciones peculiares en la relación entre los elementos superior e inferior.

Las características armónicas de Gottlieb, la fuerza de las imágenes y la fuerte verticalidad de la composición han sido simplificadas y condensadas en la obra *Niebla*. Tal y como su título indica, la paleta es rica en matices delicados que abarcan desde el blanco y gris suave hasta casi negro. Una forma blanca y circular se difumina hacia un aura que la rodea, suspendida sobre una forma oscura y dinámica pintada con gran vigor. Con la reducción de medios por parte de Gottlieb, la obra *Niebla* adquiere una presencia dominante.
—V. E. B.

11. William Baziotes, *Akuatikoa*, 1961

"Nire pinturetako gauzek, kolore sinple eta oreka abstraktuei ezezik, giza izaerari, bizitzaren misterioei ere lotuta datorren zerbaiten kontra egin nahi dute".

William Baziotesen pinturak bat-batekoak dira, automatismo surrealistaren izpiritupean sortutako intuiziozko zereginak. Mihise bakoitzak, aldarrikatu zuen artistak 1947an, "produzitzeko berarizko modua du ... Hastapen bakoitzak zerbait dakar gogora ... Orduan iradokipena harrapatu eta erreal egin behar den mamu bihurtzen da". Baziotesek lortu nahi zuen "errealitatea", egoera psikologiko eta hunkigarrietarako kolore eta formak parekoak diren gauzen zeregina beteko duen arlo poetikoan existitzen da soilik. Begizko metaforaren erabilera hori, artistari, poesiarekiko maitasunak Baudelairenak eragin zion artistari. Poetaren "adostasunen" teoriak, naturako gauza guztien oinarrizko baliokidetza eta aukeratutako ezein gauzak, beragandik urrun gelditzen den zerbait irudikatzeko ahalmena aldarrikatu zuen. 1940ko hamarkadaren azken alderantz, Baziotesek bere sinadura formaletako arrazoia aurkitu zuen —forma delikatu, erdizka transluzido, kolore apalek ur-eremuetan zintzilik dauden forma biomorfikoetan—, Baudelaire-ren erreferentzi eta harreman mundua dakartzatenak. "Landaretza, fauna eta gizabanakoenganako enfasiak", dio artistak bere pinturez ziharduela "gu guztiok liluratu eta mistiko egiten gaituen ez-ohiko oroimen eta sentimendu psikikoak eragiten ditu".

Baziotesek naturaganako duen interes bizia, funtsezko egia eta jakinmin zientifikoen lilurak aldi berean eragiten zituen New York School beste artista zenbaitekin konpartitu zuen. Ikerketa utopiko bion artean zubia jarri zuena mikroskopioa izan zen, begitaratu zigun proteinadun formen mundu ikustezinak bizitzaren funtsa argituko duela erakutsi du. Mundu organikoaren ezaugarri metafisikoak ezagutzeko kezkak, itsas-iruditerirako Baziotes-ek duen joera argi lezake, *Akuatikoa* lanean erakutsi den moduan, urez betetako mundu lasaian zehar igeri doazen sugeantzeko formez osatutako pinturan. Ozeanoaren sinbologi-aukerak zenbaezinak dira eta Baziotesek esanahi horietariko batzuk jaso zituen. *Akuatikoa*, artistak itsasoa harreman sinbiotikoen jabe gisa antzemateko duen modu erromantikoaren adierazletzat hartu izan da. Artista aho bete hortz gelditu zen aingiren elkartzeko moduaz: ozeanoan barna igeri egin , inoiz edo behin elkar jo eta, betiere batera. Pinturan ageri diren fintasun handiz elkar-gurutzatutako marrek, urpean barrena beren bideari jarraiki doazen aingira zintzoak irudikatzen dituztela sinestu izan da.
—N. S.

11. William Baziotes, *Acuático*, 1961

"Las cosas en mi pintura tienen la intención de hacer un llamamiento a algo que es un compromiso emocional, que tiene que ver con la personalidad humana y todos los misterios de la vida, no sólo colores o equilibrios abstractos".

Las pinturas de William Baziotes son obras intuitivas libremente improvisadas creadas en el espíritu del automatismo surrealista. Cada lienzo, afirmaba el artista en 1947, "tiene su propia forma de evolucionar ... Cada comienzo sugiere algo ... Entonces la sugerencia se convierte en un fantasma que debe atraparse y hacerse real". Para Baziotes, la "realidad" a que él aspiraba existe solamente en un reino poético, en el que el color y la forma sirvan como análogos de los estados emocionales y psicológicos. Esta utilización de la metáfora visual fue inspirada por el amor a la poesía por parte del artista, especialmente la de Charles Baudelaire, cuya teoría de las "correspondencias" proclamaron la equivalencia fundamental de todas las cosas en la naturaleza y la capacidad de cualquier cosa designada para simbolizar algo más allá de sí misma. Hacia finales de 1940, Baziotes consiguió su motivo formal de firma —formas delicadas, semitranslúcidas, biomórficas suspendidas en campos acuosos de colores apagados— que invoca el mundo de alusión y asociación de Baudelaire. "El énfasis en la flora, fauna y seres", decía el artista sobre su pintura, "produce aquellos extraños recuerdos y sentimientos psíquicos que desconciertan y fascinan a todos nosotros".

Baziotes compartía su gran interés por la naturaleza con otros artistas de la New York School, que simultáneamente estuvieron motivados por su búsqueda de las verdades fundamentales y su fascinación por la investigación científica. Lo que sirvió de puente para estas dos investigaciones utópicas fue el microscopio; el mundo invisible de las formas proteicas que mostraba prometía revelar los orígenes de la vida. Esta preocupación por identificar las características metafísicas del reino orgánico puede iluminar la predilección de Baziotes por la imaginería marina, según se demostró en *Acuático*, una pintura de formas sinuosas nadando a través de un mundo tranquilo y acuoso. Las posibilidades simbólicas del océano son muy amplias y Baziotes se inspiró en muchos de sus significados. *Acuático* se ha interpretado como una expresión de la visión romántica del artista por el mar como dominio de las relaciones simbióticas. El artista se sentía cautivado por la práctica de apareamiento de las anguilas, que nadan en el océano, rara vez en contacto pero siempre juntas. Se cree que las líneas delicadamente entrelazadas en la pintura representan estas fieles anguilas en su trayecto por las profundidades marinas.
—N. S.

12. Robert Motherwell, *Errepublika espainiarrarri elegia 110,* Bazko eguna 1971

"Elegia espainiarrak ez dira «politikoak», baizik eta ahaztu behar ez den heriotza ikaragarria gertatu zelako nire ekinaldi partikularra. Egin ahal izan nituen bezain elokuenteak dira. Baina pinturok bizitza eta heriotzaren arteko harremanen eta kontrastearen metafora orokorrak ere badira".

Robert Motherwellek 21 urte besterik ez zituen Espainiako Gerra Zibila lehertu zenean 1936an, baina bertako izugarrikeriek inpresio ezabaezina utzi zuten artistarengan, beranduago 200 pintura baino gehiagoko sail bat dedikatuko baitzion gai horri. Hiru urteko gerraren ondorio tragikoek —700.000 pertsona baino gehiago hil ziren borrokan, eta historiako lehen aire-bonbardaketa suposatu zuen herritar zibilen aurka— artista askoren erantzuna eragin zuten. Ezagunena, Pablo Picassok 1937an sortutako Guernica pintura monumentala, gertakarien izugarrikeriaren adierazgarri. Motherwellen atzerabegirako ikuspegitik, gerra zuzengabekeria guztien metafora bihurtzen da. Haren *Errepublika espainiarrari elegiak* obraren bidez, giza sufrimenduaren gorazarre erraldoia, eta bizitza eta heriotzaren zirkulu errukigabearen sinbolo abstraktu eta poetikoak egin nahi izan zituen.

Erreferentziarik gabeko ikus-lengoaiaren bidez giza hilkortasunari egindako aipamenak Sinbolismo frantsesari dion mirespena erakusten du, Espresionismo Abstraktuko pintoreekin lotzen zuen sentimendua. Stéphane Mallarmé poeta sinbolistaren ustea, alegia, poemak ez lukeela entitate, ideia edo gertakari jakinik errepresentatu behar, horrek sortzen duen ondorio hunkimenezkoa baizik, ideia iradokitzaile nagusia izan zen Motherwellentzat. *Elegien* direlakoen motif abstraktu amankomuna —bulbo-eiteak zutabeantzekoen artean zapalduak— hondamenaren esperientziari eta erresistentziaren estoikotasunari egindako zeharkako eta bukaera irekiko erreferentziatzat irakur daiteke. Bizitzaren beraren izaera dialektikoa azaltzen da beltza zuriaren gaineko justaposizio hutsaren bidez, zein forma oboideak eta lerrozuzen lodiak elkarrekin kontrastatzean distira egiten baitu. *Elegiei* direlakoei buruz, Motherwellek esan zuen: "Haiek pintatzeko lanean denboraldi bat iragan ondoren, Beltza nire gaietariko bat dela konturatu nintzen —eta, beltzarekin batera, kontrastean duen zuria, nire ustez erabat espainiarra den bizitza eta heriotzaren ikuspegia. Funtsean, heriotzaren beltz espainiarra, Matissek darabilenaren antzeko eguzki-argi distiratsuarekin kontrastean". Horrek, eta *Elegien* direlakoen garapena gogoratuz Motherwellek egindako beste adierazpenek, forma ikonografia baino lehenago zegoela erakusten dute. *Elegiak* direlakoak 1948an Harold Rosenberg-en Espainiako Gerra Zibilarekin zerikusirik ez zuen poema bat

12. Robert Motherwell, *Elegía a la República Española Nº 110,* Domingo de Pascua de 1971

"Las elegías españolas no son «políticas», únicamente son mi particular forma de insistir en que ocurrió una terrible muerte que no debería olvidarse. Son tan elocuentes como he podido hacerlas. Pero los cuadros también son una metáfora general del contraste entre la vida y la muerte y su interrelación".

Robert Motherwell sólo tenía 21 años cuando estalló la Guerra Civil Española en 1936, pero sus atrocidades causaron una impresión indeleble en el artista, que más tarde dedicaría una serie de más de 200 pinturas al tema. Las proporciones trágicas del conflicto que duró tres años —murieron más de 700.000 personas en combate— y que ocasionó por primera vez en la historia el bombardeo aéreo de una población civil, provocaron reacciones en miles de artistas. El más famoso de ellos, Pablo Picasso, creó su pintura monumental *Guernica* en 1937 como expresión de agravio por los acontecimientos. Desde el punto de vista retrospectivo de Motherwell, la guerra se convirtió en una metáfora de cualquier tipo de injusticia. El artista concibió sus *Elegías a la República Española* como majestuosas conmemoraciones del sufrimiento humano y como símbolos abstractos y poéticos del ciclo inexorable de la vida y la muerte.

La alusión de Motherwell a la mortalidad humana a través de un lenguaje visual no referencial, demuestra su admiración por el simbolismo francés, una apreciación que compartía con los pintores Expresionistas Abstractos. Motherwell se inspiró especialmente en la creencia del poeta simbolista Stéphane Mallarmé de que una poesía no debe representar una entidad, idea, o acontecimiento concreto, sino más bien el efecto emotivo que produce. El motivo abstracto común de la mayor parte de la *Elegías* —un dibujo alterno de formas bulbosas, comprimidas entre formas de columnas— puede entenderse como referencias indirectas y abiertas a la experiencia de la pérdida y de la resistencia estoicas. La naturaleza dialéctica de la vida misma se expresa a través de la yuxtaposición del negro y el blanco, que reverbera en las formas de bloques ovoides y rectilíneos que contrastan. Con referencia a las *Elegías*, Motherwell dijo, "Tras un período de tiempo dedicado a la pintura de estos cuadros, descubrí el color Negro como uno de mis temas —y con el negro, el blanco como contraste, un sentido de la vida y la muerte que para mí es muy español. Son esencialmente el negro español de la muerte contrastado con el resplandor de una luz del sol, similar a los de Matisse". Esta y otras observaciones que Motherwell hizo respecto a la evolución de las *Elegías* indicaron que la forma precedió la iconografía. Dado que las *Elegías* datan de un esbozo a tinta hecho en 1948 para acompañar a una poesía de Harold Rosenberg que no guardaba ninguna relación con la Guerra Civil Española y cuya

ilustratzeko egindako tinta-zirriborro baten ondorio direnez gero, eta beren konposaketa-sintaxia gero eta biziago bihurtuz joan zenez gero, itxura guztien arabera saileko lan bakoitzaren "esanahia" subjektiboa dela eta denboraren eraginez garatu egiten dela dirudi.
—N. S.

13. Joan Mitchell, *Kumeentzako tokia*, 1976
"Musikak, poemek, paisaiek eta txakurrek bultzatzen naute pintatu nahi izatera".

1950. urtean, Espresionismo Abstraktuaren unerik gorenean, Joan Mitchell Chicagotik New Yorkera aldatu zen, eta han pintatzen eta artearen historia eta literatura frantsesa ikasten jarraitu zuen. Greenwich Village-ko artista baten bizimodu bohemioa eginez, pintura, poesia eta musika alorretako bere parekoekin tratatzen zen, eta askotan ibiltzen zen Cedar Street Tavern-en. Willen de Kooning eta Franz Kline-ren estudioak bisitatu zituen, eta bigarrenaren pintura zuri-beltzek, Mitchellek esan zuenez, "gogoa astindu zidaten". Gizonezkoa nagusi zen giro horretan, Mitchellek Mendebalde erdiaz eta Mexikoko udez gogoratzen zituen paisaietan sustraituriko abstrakzio modu bat garatu zuen. Artistaren pintatzeko keinuzko estiloa, hala ere, erabat urbanoa zen, eta bat zetorren Harold Rosenbergek, 1952an, *action painting* deitu zuenarekin. Hala ere, badirudi Mitchell arduratu zela bere trebetasunak pinturarako hurbilketa fisiko horretara moldatzeaz; behin kazetari bati esan zionez, bere arrakastaren arrazoia bere burua, emakumea zen aldetik, "lehiaketa nagusiko" parte hartzailetzat ez izatean zetzan. Baina 1951n Leo Castelli-k eta The Club espresionista abstraktuen taldeko kideek antolatutako Ninth Street Show garrantzitsuan sartu izanak garbi erakutsi zion New Yorkeko Eskolako bigarren belaunaldiko ordezkari nagusi bat zela.

Kumeentzako tokia artistaren heldutasuneko lanaren adierazgarri da. Paisaia iradokita dago bai tituluan, baita konposizio horizontalean ere. Mitchellek askotan elkartzen zituen mihiseak bere pintatze eremua zabaltzeko helburuz. Lan honetan bi daude, bien gainazalak erabat estaltzen dituzten pintzelkada irregularren bidez elkarturik. Loditasun horretan, kontu handiagoz maneiatutako pintura eta tonu argiagozko zuloek alderik alde zulatutako urdin ilunezko pintzeldaken egitura bat nabarmentzen da. Paleta, Mitchellek tonu epelen gainetik urdin eta berdeetarako zuen joera handiaren erakusgarri tipikoa da. Koloreztapen horrek, eta 1967tik hil arte artista Vétheuil-en, Frantzia —Claude Monet-ek bere lehen estudioa izan zuen herria— bizi izanak Mitchellen obraren eta Inpresionismoaren arteko konparazioak eragin ditu.
—I. S.

sintaxis composicional se volvió cada vez más intensa, parece todavía más evidente que el "significado" de cada obra de la serie es subjetivo y que evoluciona con el tiempo.
—N. S.

13. Joan Mitchell, *Lugar para los Cachorros*, 1976
"La música, los poemas, el paisaje y los perros producen en mí el deseo de pintar".

En 1950, durante el auge del Expresionismo Abstracto, Joan Mitchell se mudó de Chicago a Nueva York, donde siguió pintando y empezó a estudiar historia del arte y literatura francesa. Llevando la vida bohemia del Greenwich Village, se codeó con otros compañeros de los campos de la pintura, de la poesía y la música y frecuentaba la Cedar Street Tavern. Visitó los estudios de Willem de Kooning y Franz Kline, cuyos cuadros en blanco y negro, según decía, le alucinaron. En este entorno predominantemente masculino, Mitchell evolucionó hacia una forma de abstracción que tenía su origen en el del paisaje del Medio Oeste y en los veranos en México que ella recordaba. Sin embargo, su estilo pictórico gestual era completamente urbano y asociado a lo que Harold Rosenberg apodó en 1952 como *Action Painting*. Sin embargo, Mitchell parece haber sido cautelosa al afirmar su propia habilidad con ese planteamiento físico con respecto a la pintura; en una ocasión relató a un entrevistador que ella atribuía su éxito al hecho de que nunca se consideró parte de "la gran competencia", por ser mujer. Su inclusión, en 1951, en la *Ninth Street Show*, organizada por Leo Castelli y los miembros del grupo expresionista abstracto The Club, demostró ser una de las mejores exponentes de la segunda generación de la Escuela Neoyorquina.

La obra *Lugar para los Cachorros* es un ejemplo de su maduración artística. El paisaje se evoca tanto en el título como en la composición horizontal. A menudo, Mitchell unió un lienzo con otro con el objeto de extender su campo pictórico. En esta obra hay dos lienzos, sus planos están cosidos con una pincelada uniforme por toda la tela además de otras pinceladas aplicadas de forma irregular. De este espesor sobresale una estructura de pinceladas en azul oscuro que es atravesada por huecos de pintura más delicada y tonos ligeros. La paleta es típica de la fuerte tendencia de Mitchell por los azules y verdes más que por los tonos cálidos. Este colorido junto con el hecho de que ella viviera en Vétheuil, Francia —el lugar del primer estudio de Claude Monet— desde 1967 hasta su muerte, ha llevado a establecer comparaciones entre la obra de Mitchell y el Impresionismo.
—I. S.

14. Philip Guston, *Ilargi-argia*, 1978

"Arte abstraktutik jaso genuen mitoan bada zerbait irrigarri eta miserablea dena: pintura autonomoa, purua eta berezkoa izatea da ... Baina pintura bada «ezpurua». Gu irudi-egile eta irudiek eramandakoak gara".

Philip Gustonen hasierako nahia komiki-marrazkigilea izatea zen. Los Angeles-en hazia, Manual Arts High School-era joan zen Jackson Pollock bere lagunarekin. Nahiz eta hilabete batzuen buruan alde egin zuen, 1930ean Arte Modernoko Arensberg bilduma ikustea epifania izan zen beretzat, pintore izateko zuen nahia indartu baitzion. 1935etik 1940ra mural figuratiboak egin zituen WPAko Arte-Proiektu Federalatentzat (Work Progress Administration), era berean, XV. mendeko arte italiarragatik grina piztu zion bideari ekin ziola. Hiriko gaietako bere muralen artean, zaborrontzien estalki eta makilekin armaturik zeuden hiriko umeen eszenak ikus zitezkeen, miresten zuen Paolo Uccello-ren guda handietako pinturen omenez.

1974an, Gustonek John Simon Guggenheim Fundazioko beka bat jaso zuen, irakaskuntza utzi eta, bidaiatu eta New Yorkera itzultzeko aukera eman ziona. Bertan, abstrakzioari jarraitu zion, New Yorkeko Eskolako bigarren belaunaldiko pintore garrantzitsuenetariko bat bilakatu arte. Hala eta guztiz ere, 1960ko hamarkadan, lanak berak eta estiloak ere, gero eta gutxiago asetzen zuen, hamarkadaren amaierarako narratibarekin topo egin zuen arte.

Artistaren pintura figuratibo berriak 1970ean erakutsi ziren lehenengo aldiz New Yorkeko Marlborough Gallery-n. Kritikak aurkakoak izan ziren: Hilton Kramer-ek, esate baterako, *Baldarrontzi baten itxura eman nahi duen mandarina* izenburupeko artikuluan gogor egin zion. Harrera hori bazter utziz, eta Robert Storr-ek "etxeko atxiloketa kritikoa" deitu zuenarenpean, artista bere bizitzako aldirik emankorrenean murgildu zen. Bere iruditeria —zapatak, zuhaitzak, zigarroak, gereziak— arrunta zen, baina adierazmoldea guztiz apartekoa. *Ilargi-argia* obrak hodeiertzaren gainetik lebitazioz altxatutako enbor saila itxuratzen du. Bertan, artistaren hastapeneko lanen oihartzuna aurki daiteke enborren muturren formetan, WPAko muraletako umeen ezkutuak imitatuz; baita konposizioan ere, pintura abstraktuetako pintzelkada gogortuetako erdialderatutako taldeekin erka daitekeen horretan.
—I. S.

14. Philip Guston, *Claro de Luna*, 1978

"Hay algo ridículo y mezquino en el mito que heredamos del arte abstracto: que la pintura es autónoma, pura y por ella misma ... Pero la pintura sí es "impura". Nosotros somos creadores de imágenes y estamos acosados por las imágenes".

La ambición más temprana de Philip Guston fue la de dibujante de comics. Educado en Los Angeles, asistió al Manual Arts High School con su amigo Jackson Pollock. Aunque dejó la escuela de arte apenas transcurridos algunos meses, una visita que hizo en 1930 a la colección de arte moderno Arensberg fue como una epifanía que consolidó su deseo de convertirse en pintor. Desde 1935 a 1940 trabajó en murales figurativos para el Proyecto Artístico Federal de la WPA (Works Progress Administration) apasionándose al mismo tiempo por el arte italiano del siglo XV. Entre sus murales de temática urbana, escenas de niños callejeros armados con tapas de cubos de basura y estacas son como un homenaje a aquellos cuadros de grandes batallas creados por Paolo Uccello a quien tanto admiraba.

En 1947 Guston recibió una beca de la John Simon Guggenheim Foundation, que le permitió dejar la enseñanza, viajar y regresar a Nueva York. Allí, siguió la línea del movimiento abstracto hasta convertirse en uno de los más importantes pintores de la segunda generación de la Escuela de Nueva York. Sin embargo, en la década de los sesenta, su insatisfacción con la facilidad de su estilo y de su propia obra fue aumentando hasta que, al final de la década, redescubrió la narrativa.

En 1970 y en la Marlborough Gallery de Nueva York se expusieron por primera vez las nuevas pinturas figurativas del artista. Las críticas le fueron desfavorables: Hilton Kramer, por ejemplo, le atacó ferozmente en un artículo titulado: *Un Mandarín que simula ser un incompetente.* A pesar de esta acogida, y sufriendo lo que Robert Storr denominaría "un arresto domiciliario por la crítica", el artista inició uno de los períodos más productivos de su vida. Sus imágenes —zapatos, árboles, cigarros puros, cerezas— eran corrientes, pero su forma de representarlas era desconocida. La obra *Claro de Luna* describe un conjunto de troncos que levitan sobre un horizonte. En él, se pueden hallar reminiscencias de su obra más temprana en la forma de los extremos de los troncos, que imitan a los escudos de niños en sus murales del WPA, y en la composición, que es comparable a los grupos centralizados de pinceladas coaguladas de sus pinturas abstractas.
—I. S.

15. Jean Dubuffet, *Nunc Stans*, 1965eko maiatzak 16-ekainak 5

"Nire arma (pintura) gauzen izenak ezabatzeko makina baten autzekoa da ... arrazoi guztia suntsitu eta gauza guztiak anbiguotasun eta nahasmendura itzultzeko".

Jean Dubuffet arte-munduan sartu aurretik, hizkuntzekin ziharduen. Haurtzaroan, amerikar indioenganako lilura sentitzen zuelarik, alfabeto pseudo-aborigena asmatu zuen; geroago, ikasle zaletua zen aldetik, hizkuntza batzuk ikasi zituen (gehienak hilak), hieroglifikoak barne Mugimendu surrealistako partaide zen aldetik, bere interes berezia ez zen hizkuntzak zibilizatzeko duen gaitasuna, baizik eta giza-jokabide okerra edo are joera anarkikoak kodifikatzeko erabiltzen ziren heinean. Komunikatzeko sistema esoteriko eta idiosinkratikoen atzetik zebilela, Dubuffet *Art Brut* edo *Raw Art* kontsideratzen zuenarekin zoratuta geratu zen: autodidakten isurpen adierazkorrak, instituzionalizatuak, kriminalak zein umeak izanda. (Bere *Art Brut* bilduma Lausanne hiriari utzi zion 1974an). Bere artea lantzeko *Art Brut* delakoaren metodoak zein modua bere egin zituen, erakusketa batean lehenengo aldiz bere pinturak aurkeztu zituenean, 1944an, eta arrakasta lortu zuten ikusleen artean, pinturek gordetzen zuten berezko ume-irudimen eta *graffiti* itxuragatik. Artista irrazionaltasuna maite zuten surrealisten metodoen aurka jotzeko adina ez-konformista izanik, sinestezina da Frantzian gerra-osteko artistarik ospetsuen bilakatu izana.

Norbere estiloaz jantzitako eskizofrenikoaren antzera, Dubuffetek urteen joanean aldaketa handia jasan zuen, hasi bere pintura irregular eta zirriborratuetatik erdibideko lurrezko errunetaik pasatuz, bere azken garaiko puzzle itxurako pintura eta eskultura argietaraino. Hala ere, Dubuffeten obran zehar, bere marraketaren nolakotasun eskuzko eta automatikoa iraunkor mantentzen da. *Nunc Stans* Nanterre-ko (Frantzia) Letren Fakultateko atalondorako agindu zioten, baina ez zuten sekula ezarri bertan. *Hourloupe* sail ospetsuko azkenetariko lana da, Dubuffetek 1962an telefonoz ari zela boligrafo gorriz zirriborro txiki batzuk eginez hasi zuena. Sail horretako lanetan kolore primarioak darabiltza, eta baita puzzle itxurako konposizioak ere. Lehenengoen artean, elementuak bereiztea ez da lan nekeza; beranduagokoetan, berriz, pertsonak zein objektuak, idazmakinak txorrotak, labeak eta eskailerak esaterako, gero eta arranditsuago bilakatu ziren, gero eta azalera apaingarri eta bateratuagorantz joz.

Ez da harritzekoa sailean hizkuntzalaritzak bere funtzioa bete izana. Besteak beste, *Nunc Stans* laneko kiribildutako iruditeria-tirak Mayen kodea gogorarazten du. Titulu hori, eta baita bere saileko gainontzeko lanetakoa ere, Dubuffetek asmatutako terminoak dira. Inongo hiztegik jasotzen ez dituen termino horiek Dubuffet-en *L'Hourloupe* (1962) liburuan

15. Jean Dubuffet, *Nunc Stans*, 16 de mayo-5 de junio de 1965

"Mi arma (la pintura), funciona como una máquina para abolir los nombres de las cosas ... una máquina para aniquilar toda la razón y devolver todas las cosas a la ambigüedad y a la confusión".

Jean Dubuffet era un gran conocedor de las lenguas mucho antes de que se iniciara en el arte. En su infancia, encaprichado con los indios norteamericanos, inventó un alfabeto pseudoprimitivo; más tarde, siendo un hombre de letras aficionado, estudió varias lenguas (la mayoría de ellas lenguas muertas), incluyendo jeroglíficos. Como participante en el movimiento surrealista, su especial interés no estribaba en la capacidad de la lengua para civilizar sino en las formas que era utilizada para codificar la conducta antisocial o incluso las tendencias anarquistas. Buscando los sistemas esotéricos e idiosincrásicos de la comunicación, Dubuffet quedó prendado por lo que él consideró como *Art Brut* o *Raw Art:* las efusiones expresivas de los autodidactas, las personas institucionalizadas, tanto criminales como niños. (En 1974 donó su extensa colección del *Art Brut* a la ciudad de Lausanne.) Adoptó los métodos y el estilo del *Art Brut* en la creación de su propio arte, que cuando fue expuesto por primera vez en 1914 causó sensación entre el público por sus imágenes intencionalmente infantiles y su dibujo a modo de *graffiti*. Dado que el artista fue tan extremadamente inconformista como para desafiar incluso los métodos de los surrealistas amantes de lo irracional, no deja de ser irónico que se convirtiera en uno de los artistas más populares de la Francia de la posguerra.

Casi como un autodenominado esquizofrénico, Dubuffet cambió radicalmente a lo largo de los años, pasando de sus garabatos y descuidados dibujos a las runas terrosas de su período intermedio o las pinturas brillantes y esculturas semejantes a rompecabezas de su último período. Sin embargo, en toda la obra de Dubuffet sigue siendo consecuente la calidad manuscrita, casi automática de su línea. *Nunc Stans*, es una de las últimas obras pertenecientes a la serie encargada para el vestíbulo de la Faculté des Lettres en Nanterre, Francia, y pertenece a la serie monumental *Hourloupe*, que Dubuffet inició en 1962 con un pequeño garabato que trazó con bolígrafo rojo mientras hablaba por teléfono. En las obras de la serie se utilizan colores primarios y composiciones parecidas a los rompecabezas. En las primeras, los elementos son fácilmente descifrables, pero en las obras posteriores las personas y los objetos, como, por ejemplo, las máquinas de escribir, grifos, hornos y escaleras, iban haciéndose menos discretos, fundiéndose cada vez más en superficies decorativas y unificadas.

No es de extrañar que la lingüística desempeñe un importante papel en la serie. La banda en espiral de las

aipatzen dira, bere ideiak zabaldu eta bere artea dokumentatzeko idatzi zuen lanetako batean, alegia.
—I. S.

16. Lucio Fontana, *Kontzeptu espaziala, iguripenak,* 1959
"Gizartean kontzientzia berri bat sortzen ari da, eta jadanik ez da beharrezkoa gizona, etxea edo natura irudikatzea. Geure irudimenaz sentsazio espazialak sortu behar dira".

Hogeigarren mendean zehar zientzia eta teknologiaren arloan emandako aurrerapenei Lucio Fontanak zien begiruneak eragin zion bere artea baliabide eta metodoen barietate zabal batean buruturiko ikerketa sail bihurtzea. Eskultore bezala, harri, metal, keramika eta neonarekin esperimentatu zuen; pintore gisa, bidimentsioko gainazalaren mugapenak gainditzen ahalegindu zen. 1946ko *Manifiesto blancorekin* (*Manifestu zuria*) hasitako manifestu sail batean, Fontanak arte "espazialista" delakoa egiteko asmoa iragartzen du, hau da, teknologia laugarren dimentsioa lortzen konprometituko lukeen artea. Arkitektura, eskultura eta pinturaren kategoriak lotu nahi zituen hizkuntza estetiko berritzailea sortzeko.

1947. urtetik aurrera, Fontanaren esperimentuak *Concetti spaziali* (Kontzeptu espazialak) izenarenpean agertu ziren sarritan, zeinen artean kategori-progresioa hedatzen den. Artistaren eskultura polikromoek kolorea ekarri zuten, izatez pinturari zegokiola uste bazen ere, hiru-dimentsioko arlora. Haren *Pietre* (harriak) sailarekin, 1952an hasitakoa, alderdi eskulturala pinturarekin nahasi zuen, mihiseetako azaletan enpaste gogorra eta koloretako kristala sartuz. Haren *Buchi* (zuloak) zikloan, mihiseetako azala zulatu egin zuen, bidimentsionaltasunaren mintza apurtuz pintura-lanaren atzeko espazioa argitzeko. 1958. urteaz geroztik, Fontanak purufikatu egin zituen bere pintura-lanak azal mate, monokromatikoak sortuz eta, era horretara, ikuslearen arreta mihisearen azala arrailatzen zuten ebaketetan gunetuz. *Konzeptu espaziala, iguripenak* bezalako pintura-lanak daude *Tagli* (ebaketak) direlako horien artean, zeinaren ertz bortitzek berrindartzen duten pintura-lana objetua, eta ez soilik azala, delako ideia.

Fontanaren aldarrikapen asko Lehen Mundu Gerraren aurretik egindako adierazpen Futuristaren oihartzun dira. Artistak materialeak espazioarekin integratzeko duen gogoak, keinuaren bidez mugimenduak adierazteko beharrak, eta izaeraren egoeretan duen interesak (lan honetako tituluan "iguripenak" hitzaren erabilera, kasu), Umberto Boccioniren lanaren ezagutza hurbila aditzera ematen dute, eskultore,

imágenes de la obra *Nunc Stans*, por ejemplo, recuerda a un código Maya. Su título y el de sus series son términos inventados por Dubuffet. Aunque no se encuentren en ningún diccionario, se mencionan en el libro ilustrado *L'Hourloupe* (1962) de Dubuffet, uno de los muchos trabajos que escribió con el fin de diseminar sus ideas y de documentar su arte.
—I. S.

16. Lucio Fontana, *Concepto Espacial, Expectativas,* 1959
"Se está generando una nueva conciencia en la humanidad de modo que ya no es necesario representar un hombre, una casa o la naturaleza. Es preciso entonces crear sensaciones espaciales con nuestra propia imaginación".

El respeto de Lucio Fontana por los adelantos de la ciencia y de la tecnología a lo largo del siglo XX, le condujo a plantear su arte como una serie de investigaciones con una amplia variedad de medios y métodos. Como escultor, experimentó con la piedra, los metales, la cerámica y el neón; como pintor, intentó trascender los confines de la superficie bidimensional. En una serie de manifiestos, que comenzaron con el *Manifiesto Blanco* de 1946, Fontana anunció sus objetivos sobre un arte "espacialista", capaz de emplear la tecnología para lograr una expresión de la cuarta dimensión. Quería aunar las categorías de la arquitectura, la escultura y la pintura para crear un nuevo idioma, estético e innovador.

A partir de 1947 a los experimentos de Fontana se les denominaba a menudo *Concetti spaziali* (Conceptos espaciales), entre los cuales se desplegó una progresión en categorías. Las esculturas policromadas del artista introducían el color, considerado del dominio de la pintura, en el ámbito de lo tridimensional. Con su *Pietre* (piedras), iniciada en 1952, fusionó lo escultórico con la pintura, incrustando las superficies de sus lienzos con una espesa capa de empaste y vidrio coloreado. En el ciclo *Buchi* (agujeros), perforó la superficie de sus lienzos, rompiendo la membrana de la bidimensionalidad con objeto de resaltar el espacio tras el cuadro. A partir de 1958, Fontana depuró sus cuadros, creando superficies mate, monocromáticas, enfocando la mirada del espectador a los cortes que desgarraban la "piel" del lienzo. Entre estos *Tagli* (cortes) se encuentran pinturas como *Concepto Espacial, Expectativas*, cuyos violentos rasgones subrayan la idea de que el cuadro es un objeto, no solamente una superficie.

Muchas de las manifestaciones de Fontana se hacen eco de las declaraciones futuristas de antes de la Primera Guerra Mundial. El deseo del artista de que sus materiales se integren con el espacio, su necesidad de expresar el movimiento a través del gesto, y su interés por los estados del ser (demostrado en su uso de la palabra "expectativas" en el título de esta obra), indican la familiaridad del artista con las obras de Umberto

pintore eta teoriko futurista nabarmen hori iradokitzaile bezala aipatzen baitu Fontanak.
—J. B.

17. Eduardo Chillida, *Iru Burni*, 1966
"Eskulturak bere inguruan mugitzen den eta bizitza ematen dion guztiari adi begiratu behar dio".

Hogeigarren mendea baino lehen, artisten ez zuten metala zuzenean lantzen eskultura egiteko bide gisa. Horren ordez, igeltsuan landu eta buztinez moldatzen zituzten geroago burdinolan artisau arituek metalezko bihurtuko zituzten originalak. Hortaz, Eduardo Chillidaren eskultura, altzairua kolpatuz eta landuz lortutako forma abstraktuez osatua, hurbilketa erabat modernoaren erakusgarri da. Chillidarentzat, bere materialeak irudikatzerako bide baino gehiago, bere obraren osotasuneko kontzepzio eta formaren berezko osagaiak dira. Artistaren lan egiteko modua Julio González espainiarraren artean sustraiturik dago, hain zuzen 1920ko azken urteetan metalezko eskulturak zuzenean osatzeari ekin zion lehen artistatzat hartua dagoena. (Denboraldi labur batez, Gonzálezek Pablo Picassoren metalezko eskultura batzuetan parte hartu zuen).

Eskalaren zentzu *heroikoz* eta masa, espazio eta materialeekiko sentiberatasun handiz burutua, Chillidaren eskultura abstraktua bat dator 1940ko azken urteetako eta 1950eko hamarkadako artearen sentiberatasun tachistarekin. Lanaren ezaugarri fisikoak azpimarratuz, *Iru Burni* lanaren gainazala gordina eta azidoak herdoildua da. Ikusleak lanari angelu desberdinetatik begiratzen dionean, elkarrekin lotutako altzairuzko atalek espazioan osatzen dituzten harremanak aldatuz doazela dirudi. Chillidak forma bolumetrikoetan duen interesaren iturria, neurri batez, 1943tik 1947ra arkitekturan aritu izana da. Geroago, arte-eskolara sartu zen. Soldaturiko metalezko lehen eskulturak nahikoa delikatuak ziren, eta hizkera kubistako linealasunetik hurbil zeuden. Baina laster garatuko zuen espainiar tradizioari (eta Euskal Herrian eta Katalunian bereziki indartsua) lotuta zirudien burdina lantzeko teknika bat. 1960ko hamarkadan, Chillidak handitu egin zuen bere lanen eskala, eta agindu publiko batzuk ere burutu zituen. Obra handiak lantzen lortutako esperientzia eskala guztietan aplikatu zuen, eta erlatiboki txikia den *Iru Burni* obrak ere egituraren zentzu handia du.
—I. S.

Boccioni, un destacado escultor, pintor y teórico futurista a quien Fontana citó como fuente de inspiración.
—J. B.

17. Eduardo Chillida, *Tres Hierros*, 1966
"La escultura debe mirar siempre, y estar atenta, a todo lo que la circunda y anima".

Antes del siglo XX, los artistas no trabajaban directamente con el metal como material escultórico. Por el contrario, esculpían el yeso y moldeaban originales en arcilla que posteriormente serían sometidos a un proceso de fundición por artesanos. Así, la escultura de Eduardo Chillida consistente en formas abstractas, que se han logrado golpeando y doblando el acero, representa un planteamiento moderno en su quintaesencia. Chillida considera sus materiales no como un vehículo para representar sino como una parte inherente de la concepción total de la obra y de su forma. Las raíces de su método de trabajo se encuentran en el arte del español Julio González, a quien se le considera generalmente como la persona responsable de los primeros avances hacia la escultura realizada directamente en metal a finales de la década de los veinte. (Durante un período corto, González colaboró en varias de las esculturas metálicas de Pablo Picasso.)

Ejecutada con un sentido *heroico* de la escala y una tremenda sensibilidad por la masa, el espacio y los materiales, la escultura abstracta de Chillida coincide con la sensibilidad del arte de los últimos años de los cuarenta y de los cincuenta. Acentuando las propiedades físicas de la obra, la superficie de *Tres Hierros* es tosca y carcomida por el ácido. Puesto que el espectador ve la obra desde varios ángulos, las interrelaciones de los miembros de acero entrelazados en el espacio, parecen cambiar. El interés de Chillida por las formas volumétricas puede derivarse en parte de sus primeros años de formación, entre 1943 y 1947, en la arquitectura. Sus primeras esculturas metálicas fueron relativamente delicadas y consecuentes con un idioma cubista de formas lineales pero pronto desarrolló una técnica que parece hacer referencia a la tradición española de estructuras en hierro forjado, especialmente arraigada en el País Vasco y en Cataluña. A los largo de los años sesenta, Chillida aumentó la escala de su trabajo y ejecutó una serie de encargos públicos. La experiencia de trabajar a escala monumental se ve en todas sus obras, de forma que incluso la obra *Tres Hierros* posee un sentido majestuoso de estructura.
—I. S.

18. Antoni Tàpies, *Diptiko marroi handia,* 1978

"Nire ideia eta esperientzia politiko ugari nire pinturetatik atera daitezke, nahiz eta ezkutaturik egon eta ez egon argi adierazita berehala antzeman daitekeen kode bisualaren bidez".

Katalunian jaioa, Antoni Tàpies kultura eta politika bateratzetik datorren Espainiako gerraosteko artistarik entzutetsuenetakoa da. Hastapenetan eragin ziotenen artean Joan Miró pintorea eta Joan Brossa poeta egon ziren. 1948-1956ra bitartean *Dau al Set* aldizkaria argitaratu zuen oinarri surrealistako faxismoaren aurkako talde bateko partaide izan zen. Tàpiesek zera idatzi zuen: "Surrealismoak, niretzat eta Franco-ren garaiko gerraosteko beste artista batzuentzat, abangoardia artistikoaren eredua, aurrerakuntza, eta modernitatea esan nahi du, geure lanetan garatu nahi genuen guztia". Bere izpiritua baliabide arruntagoez baliatuz adierazi ahal izateko, Tàpiesek egungo Art Informel eta espresionismo abstraktuaren mugimenduetara jo zuen. Artistaren heldutasuneko estiloa bere larritasun politikoko terminoen bitartez deskribatu zuen: "Neure ezaugarria da nolabait bortizki lan egitea. Piezari kolpeak emanez eta torturatuz azkar lan egitea. Baina garai hartako giroa ere halakoxea zen: 1950eko hamarkadan Franco-ren erregimenak unerik ilunena ezagutu zuen". Kataluniako kulturaren aurkako Franco-ren errepresioa eta katalanera erabiltzeko debekua egon arren, Tàpiesen karrera loratu egin zen, agian, nazioarteko abstrakzioaren goi-mailako hizkuntza sotilean, bere ikuspuntu nazional politikoak arrakastaz adierazteko izan zuen gaitasunaren ondorioz.

Liburuzale amorratu gisa, Tàpiesek, literatura katalaneko eskuizkribu historiko eta literaturako liburutegi garrantzitsua bildu zuen. Idazkiok izan dira bere artearen inspirazio-bidea; esate baterako, Tàpiesek altxor moduan gordetako *Teologia naturalis* kopia bitxiak, Ramon de Sibiuda, erdi-aroko pentsalari kataluniarrak idatziak, izpiritu eta materiaren arteko bateratasuna proposatzen du, artistaren ibilbidean zehar interes nagusia izango zen berbera. Bere lanean, materialeak erabiltzeko eran agertzen da hori, marmol-hautsezko tonak bere pinturetarako molde etereo bihurtuz. Liburua, bai objektu gisa baita idazmenari lotuta datorren iruditeria gisa ere, Tàpiesen lanetan zehar azaltzen da. *Diptiko marroi handia*-ren azalera, adibidez, sibolo eta marken bitartez dago inskribatua. Lanaren egiturak liburukia irudi lezake, urteen poderioz zahar kolorea hartutakoa, nekez zabaldua, eta era mistikoan kamustua. Liburuak gehienetan, gizabanako askok goza dezaten inprimatzen dira, eta Tàpiesek antzerako nahia adierazten du bere lanari dagokionez: "Nire arteak, osotasunean, giza-alderdia du zalantzarik gabe, zabalkunde handia izateko dudan intentzioagatik besterik ez bada".

—I. S.

18. Antoni Tàpies, *Gran Díptico Marrón,* 1978

"Muchas de mis ideas y experiencias políticas pueden inferirse de mi pintura, aunque estén disimuladas y no han sido expresadas de manera obvia por medio de un código visual inmediatamente reconocible".

Natural de Cataluña, Antoni Tàpies ha surgido de la confluencia de la cultura y la política para convertirse en uno de los artistas de la posguerra más renombrados. Entre sus primeras influencias hay que destacar al pintor Joan Miró y al poeta Joan Brossa. De 1948 a 1956 fue miembro del grupo anti-facista con inspiraciones surrealistas que publicó la revista *Daul al Set*. Tàpies escribiría, "el surrealismo representó para mí y para otros artistas del período franquista de la posguerra un modelo de la vanguardia artística, del progreso y de la modernidad, que nosotros queríamos desarrollar en nuestra obra". En la búsqueda de la expresión de este espíritu a través de más medios actuales, Tàpies se inclinó por los movimientos contemporáneos del Art Informel y el expresionismo abstracto. El artista describía su estilo maduro en términos de su inmediatez política: "Es una característica mía el trabajar algo violentamente, con rapidez, martilleando y torturando la pieza, pero es que la atmósfera de los tiempos de entonces era algo parecido: los años cincuenta constituyeron uno de los momentos más oscuros del régimen franquista". A pesar de la represión ejercida por Franco a la cultura catalana y la prohibición de la lengua catalana, la carrera de Tàpies floreció, tal vez como resultado de su capacidad para introducir con éxito sus puntos de vista políticos en el lenguaje elitista y sutil de la abstracción internacional.

Bibliófilo apasionado, Tàpies reunió una importante biblioteca y manuscritos históricos de literatura catalana. Estos escritos han sido fuente de inspiración en el arte de Tàpies; por ejemplo, el prólogo de una rara copia muy apreciada por el artista de *Teologia naturalis*, escrita por el pensador catalán de la Edad Media, Ramon de Sibiuda propone una simultaneidad del espíritu y la materia, interés que predomina en toda la carrera del artista. Esto se ve reflejado en su obra en la forma en que utiliza los materiales, transformando toneladas de polvo marmóreo en una matriz etérea para sus pinturas. También en la obra de Tàpies se manifiestan tanto el libro como objeto como las imágenes relacionadas con la escritura. Por ejemplo, en la superficie de la obra *Gran Díptico Marrón*, aparecen símbolos y marcas grabados. La estructura de la obra da la impresión de un tomo de gran tamaño, con un color sepia adquirido con el paso del tiempo, abierto verticalmente y místicamente obtuso. Los libros generalmente se imprimen para ser disfrutados por muchos, y Tàpies expresa una aspiración parecida con su obra: "Todo mi arte tiene claramente un aspecto social, aunque sólo sea porque mi intención es que sea ampliamente difundido".

—I. S.

19. Joseph Beuys, *Braunkreuz etxea*, 1962-64 ingurukoa

"Nire historia pertsonalak bakarrik du interesik neure bizitza eta neure pertsona lanabes gisa erabiltzen saiatu naizen aldetik, eta hori oso gazte nintzenetik izan dela uste dut".

Joseph Beuys mitoan eta kulturaren prozesuan interesaturik zegoen. Artistaren arterako funtsezko gertakaria, II. Mundu Gerran bera zihoan abioia jo zutenean tatariar tribu batek izoztuta hiltzetik salbatu zuen, koipe eta feldrozko zapiak jarri baitzizkioten. Beuysen eskulturek erlikien zantzua dute, eta bere obra fetixtizatu egin zuen bere eguneroko bizitzaren bitxikeria gisa, kontzienteki beiratetan sartuz, etnografi museo bateko objektuak bailiran. Gainera Beuysek bere obra diskurtso didaktiko gisa zabaldu zuen, irakurketak eskainiz eta jendaurreko antzezpenak eginez. Iharduera horiek "eskultura sozialak" bezala ikusten zituen, zeinetan gizabanakook "geure mundua moldatu eta itxuratu egiten dugun" dagokigun erantzunkizun sozialaz.

Braunkreuz etxea izeneko beirateak bi objektu dauzka, bakoitzak bere historia duela. Beuysek Anthony d'Offay bere agenteari kontatu zionez, kartoizko artxibo prefabrikatua Düsseldorf-eko Kunstakademie-koa zen, eta barruko marraskari-hezurrek mastodonte eta mamuta adierazten dituzte. Horrela, artelana Burdin Aroko lanabes batez eta sua egiteko zuloez osatutako arkeologi-indusketa txiki bihurtzen da, kutxako orratzak eta ikatzezko zotzek horixe adierazi nahi dutela baitirudi.

Beuysek esan zuenez, gainontzeko objektuak berak egin zituen; beiratea, esaterako, *Braunkreuz etxea* izenekoa, bere umeentzak egin zuen. Hala ere, bere artearekin duen lotura azpimarratu zuen: elektrifikazioa adierazten duten kable eta terminaleen bidez. 1960ko hasierako urteetan, beiratea osatu zen garaian, Beuys Fluxus-en bazkide zen; horko kideentzat artea energien trukaketa komunikatiboa zen, aldi berean eroale eta txinparta. Energia eta beroa —gerra garaiko esperientziaren oiroigarri eta biziaren sostengu den epeltasunarekin batera— gai garrantzitsuak dira Beuysen obran. Iradoki zuen bezala, *Braunkreuz etxe* txikiagoa nolabaiteko aztiaren etxe edo egoitza izpiritual gisa ikus daiteke. Braunkreuz izena ("gurutze marroia" esan nahi duena) bere artean sarritan erabiltzen zuen odol lehorraren koloreko pintura industrial bati eman zion Beuysek. Termino horrek, artistak bere lanak gurutzeantzeko marka batez sinatzeko moduari ere erreferentzia egiten dio.

—I. S.

19. Joseph Beuys, *Casa Braunkreuz*, alrededor de 1962-64

"Mi historia personal es sólo de interés en la medida en que he intentado utilizar mi vida y mi persona como una herramienta, y creo que esto ha sido así desde que era muy joven".

Joseph Beuys se interesó por el mito y la creación de la cultura. Fue de vital importancia en su trayectoria artística la extraordinaria historia que le ocurrió durante la Segunda Guerra Mundial cuando el avión que pilotaba fue derribado y una tribu de tártaros le salvó de morir congelado, envolviéndole en grasa y fieltro. Las esculturas de Beuys tienen cierto sentido de reliquia y convirtió en una práctica habitual el transformar sus obras en fetiches así como las fruslerías de su vida cotidiana, colocándolas tímidamente en una vitrina, como si fueran objetos de un museo etnográfico. Posteriormente Beuys diseminó su obra mediante discursos didácticos, dando charlas y realizando acciones públicas. Consideraba estas actividades una "escultura social", en la que los individuos "moldeaban y daban forma al mundo en que vivimos" de una manera socialmente responsable.

La vitrina *Casa Braunkreuz* contiene dos objetos, cada uno con su propia historia. Como Beuys contara a su marchante Anthony d'Offay, el archivador prefabricado procedía de la Kunstakademie de Düsseldorf y los huesos de roedor del interior representan un mastodonte y un mamut. Así la pieza se convierte en un pequeño emplazamiento arqueológico que incluye una herramienta de la Edad de Hierro y restos de una hoguera, como se podría considerar que representan la aguja y las varillas de carbón de la caja.

Beuys dijo que inicialmente realizó el otro objeto, que, al igual que la vitrina, se titula *Casa Braunkreuz*, para sus hijos. Sin embargo remarcó la conexión con su arte a través de sus cables y bornes, que representan la electrificación. A principios de los años sesenta, en la época en que se montó la vitrina, Beuys estaba afiliado a Fluxus, cuyos miembros interpretaron el arte como un intercambio comunicativo de energías, que es tanto conductor como chispa. La energía y el calor, junto con el homenaje al calor como fuente de vida que retrocede a su experiencia en la guerra, son temas importantes en la obra de Beuys. Sugería que la *Casa Braunkreuz* más pequeña, podría contemplarse como la casa de un chamán o morada espiritual. Beuys otorgó el nombre Braunkreuz (que significa "cruz marrón") a una pintura industrial, del mismo color que la sangre seca que frecuentemente utilizó en su arte. El término también se relaciona con la forma en la que Beuys firmó y selló su obra: con una marca cruciforme.

—I. S.

20. Joseph Beuys, *Birjina*, 1979ko apirilak 4

Bigarren Mundu Gerraren ondorioen gainean lan egiten zuen artista alemaniarra zen aldetik, Joseph Beuysek artearen sendatze-ahalmenean jarria zuen fedea. Artistaren karisma handiak, inguratu zuten guztiek sentitu ahal izan baitzuten, gerraosteko figura europarrik nabarmenenetariko bat bihurtu zuen Beuys. Bere obraren norabide soziala gero eta handiagoa zen neurrian, Beuysek Fluxus-ekin zuen harremana bertan behera utzi eta, 1967an, Düsseldorfeko Kunstakademie-n *Deutsche Studentenpartei* delakoa sortu zuen, artista zein irakasle bezala zuen zeregina testuinguru politiko berrietara zabalduz. Ikasleekin zuen konpromezuak, gizarte-aldaketaren aldeko gurutzadak eta ingurugiroagatiko ardurak Alemaniako Partidu Berdearen sorrerarekin zerikusia izan zuten.

Beuysek ekintzaile eta pedagogo gisa jokatzen zuen papera *Birjina* lanean islatzen da: 1979ko apirilaren 4an Vienako Galerie Nächst St. Stephan-en izan zen jendaurreko eztabaidari jarraituz arbelaren gainean egindako marrazkia da. Eztabaidaren abiapuntua, Lichtenstein jauregi barrokoak hiriko arte modernoko museoaren egoitza izateko aproposa ote zen izan zen. Lehenago, Beuysek piztua zuen eztabaida arropa garbitu berria galerian zintzilikatuz; *Basisraum Nasse Wäsche* izeneko ekintza horren bidez, jauregia gaur egungo artea erakusteko arropa bustia lehortzeko bezain desegokia zela adierazi nahi zuen.

Apirileko irakurketan, Beuysek arbela, klariona, mahai bat, aulki bat eta zintzilikaturiko bonbila bat erabili zituen. Hitz egiten ari zela, xaboia egiteko eskemak eta formulak idatzi zituen arbelean. Artistaren bakarrizketa tipikoa xaboiaren kimikarekin hasi zen (azidoa eta lixiba ar eta emeekin konparatuz), eta bukatu zuen garbitze lana "emakumezkoei tradizionalki dagokiena" zela esanez. Beuysek jadanik garatua zuen bere artegintzan emakumeen nozio oso tradizionala: "etorkizuneko aukerak gizonezkoek baino irekiago" zituzten izaki arrunt, intuikor, birsortzailetzat zituen. *Birgina* lana eragin zuen eztabaidan, xaboiaren inguruko hizkera amatasunaren hizkerarekin jarri zuen harremanetan, eta birjintasuna garbitasunarekin, eta amatasuna ez-purutasunarekin lotu zituen. Garbitasun eta birjintasun nozioak arte-munduaren eragile zikin eta politikoen aurrean jarri zituen, azken horiekiko mesprezua garbi utziz.

Eztabaidaren ondoren, lagungarri izan zituen elementuak galerian kokatu ziren Beuysen beraren esanetara, eta geroago bukatutako artelan bilakatu zen *Birgina* izenez ere ezaguna, gaurregun Guggenheim Museoko bilduman. *Birgina* arbelean, Beuysek instalazioko gaiak errepikatu eta horretako materialeak era piktorikoagoan erabili zituen.

—I. S.

20. Joseph Beuys, *Virgen*, 4 de abril de 1979

Puesto que Beuys era un artista alemán que trabajaba en las secuelas de la Segunda Guerra Mundial, creía fervientemente en el poder curativo del arte. Su increíble carisma, corroborado por aquellos que le conocieron, hizo de Beuys una de las figuras más importantes de la posguerra. A medida que su trabajo iba adquiriendo una orientación cada vez más social, rompió su relación con Fluxus y en 1967 fundó el *Deutsche Studentenpartei* en la Kunstakademie de Düsseldorf, ampliando tanto su arte como su papel de profesor hacia un nuevo contexto político. Su participación en el mundo de los estudiantes, la lucha por un cambio social, y el interés por el medio ambiente contribuyeron finalmente a la fundación del Partido Verde Alemán.

El papel de Beuys como activista y pedagogo se refleja en la obra *Virgen*, un dibujo sobre pizarra que realizó después de protagonizar un debate público celebrado en la Galerie Nächst St. Stephan, de Viena el 4 de Abril de 1979. El debate fue el resultado de una controversia local en torno a la elección del Palais Lichtenstein de estilo barroco para albergar el museo de arte moderno de la ciudad. Con anterioridad, ese mismo año, Beuys había avivado el debate colgando cuerdas con ropa mojada en la galería, sugiriendo con esa acción, titulada *Basisraum Nasse Wäsche*, que el palacio no era el entorno apropiado para la exposición de arte contemporáneo, de la misma manera que no lo era para secar la ropa.

En la conferencia del mes de abril, Beuys utilizó un panel negro, una tiza, una mesa, una silla, y una bombilla colgada del techo como accesorios. Mientras hablaba, dibujaba gráficos y anotaba fórmulas para la fabricación del jabón sobre la pizarra. Su monólogo típicamente idiosincrásico empezaba con la química del jabón (con el ácido y la lejía comparados con el macho y la hembra) y terminaba con el lavado, descrito como "el dominio tradicional de las mujeres". Beuys ya había desarrollado en su arte una noción más bien tradicional de las mujeres como seres terrenales, intuitivos, reproductores con "una mayor apertura a las posibilidades del futuro" que los hombres. En el debate relacionado con la obra *Virgen*, unió el lenguaje del jabón con el de la maternidad y relacionó la virginidad con la limpieza y la maternidad con la impureza. También contrastó su noción de la limpieza y la virginidad con los motivos impuros y la política del mundo del arte, por cuyo desprecio era bien conocido.

Tras el debate, los accesorios fueron reinstalados en la galería bajo su supervisión, convirtiéndose así en una obra de arte duradera también denominada *Virgen*, actualmente en la colección del Guggenheim Museum. En la pizarra de la obra *Virgen*, Beuys reiteraba los intereses de la instalación y utilizaba sus materiales de una forma más pictórica.

—I. S.

21. Cy Twombly, *Titulurik gabea (Erroma)*, 1960ko ekaina

"Horrela, marra bakoitza beretako esperientzia da bere historia propioarekin. Ez du ilustratzen: bere trazaketa propioaren somaketa da"

Cy Twomblyk 1960ko hasierako urteetan egindako pinturak mihise zurien gainean pastel, lapitz eta pinturazko oldar haserretan egindako zirrimarrak eta urradurak dira. Pigmentuak pintura-hodiak lauskitzearen ondorio dira, eta gainazalean erdi zintzilik dauden globuluen antzekoak dira edo, *Titulurik gabea* lanean bezala, mihisean irristatu eta pastel eta lapitzezko lohidurek inbaditutako pintura-isurketak. Robert Rauschenbergek eta Jasper Johnsek bezala, Twomblyk ere espresionista abstraktuen pintura-erabilera halabeharrezko askatzailea erabili zuen, baina haien asmo heroiko edo helburu unibertsalistarik gabe. Twomblyk eta bere kideek eguneroko bizimodutik ateratako ikonografia erabili zuen (zenbaki eta hizkien irudikapenak, kasu), eta *aurkitutako objektuak* ekarri zituzten beren lanetara, txantiloiz pintatzea bezalako metodo arruntak erabiliz. Arduragabekeria eta profanazioa iradokitzea, Twomblyren lanek hain berezko duten ezaugarria (komun publikoetako *graffiti* sexualen konparazioak iradokitzen dituzte), Rauschenbergen lanetan ere ageri da, Twomblyk Italia bisitatu zuenean bidailagun izan baitzuen 1953an.

1957an, Twombly Erroman finkatu zen, eta han pintore kaligrafikoen eskola txiki bat sortarazi zuen. Heldutasuneko pinturetako elementu nagusiak —hormaren antzeko gainazalean *graffiti* itxurako idazketa egitea, eta baliabideen ezaugarri materialei enfasia ematea— kontinenteko pintoreen funtsezko planteiamenduekin bat datoz, bereziki Informale delakoarekin zerikusirik zutenekin (Art Informel-en pareko italiarra). Twomblyren obra bere etxeordeari zein tradizio neoklasiko zabalagoari egindako erreferentziez beterik dago; askotan aipatzen ditu gai mitologikoak, pinturako maisu zaharrak, eta toki eta gertakari anekdotikoak pinturetan azkar idatzitako titulu, hitz edo esaldien bidez. Paisaia idilikoek eta plazer bakanalekin duten zerikusiak etengabe inspiratu dute Twombly. *Titulurik gabea* lanaren paleta, adibidez, XVIII. mendean Boucher-ek edo Fragonard-ek pintatutako *fête champêtre* baten oihartzun urruna da, zeinean hautseztutako ileez eta masaila arrosez hornitutako gazte sentsualak oihaneko soilune batean ihutika dabiltzan, zeharkako aipamen erotikoez beteriko irudia izanik. Twomblyren pinturan, zipristin eta zirrimarren sexu-karga lehergarria plano eta grafiko modernoez osaturiko lengoaia hermetikoak zaildua ageri da, Roberta Smith arte kritikariaren arabera, "gizabide gehiegizko bibliofilo bat, bat-batean —grafikoki, ia lizunki— hizkuntzak" hitz egiten hasiko balitz bezala.

—J. B.

21. Cy Twombly, *Sin Título (Roma)*, junio de 1960

"Por tanto, cada línea es la experiencia con su singular historia. No ilustra, es la percepción de su propia realización".

Las pinturas de Cy Twombly de comienzos de los años sesenta consisten en lienzos blancos en los que ha realizado garabatos y rasguños en ráfagas furiosas de pastel, lápiz y pintura. Los pigmentos se estrujan del tubo, y se quedan como glóbulos que cuelgan débilmente de la superficie o, como en *Sin Título*, eyaculaciones de pintura que se escurren del lienzo y son invadidas por manchas de pastel y lápiz. Al igual que Robert Rauschenberg y Jasper Johns, Twombly ha explotado el uso aleatorio liberador de los expresionistas abstractos, pero sin sus pretensiones heroicas u objetivos universalistas. Tanto Twombly como sus colegas han utilizado una iconografía de la vida cotidiana (tal como las representaciones de números y letras) y han incorporado *objetos encontrados* en sus obras, mediante la utilización de métodos tan comunes como el estarcido. La insinuación del descuido y la profanación, tan inherente a los cuadros de Twombly (invocan comparaciones con los *graffiti* de carácter sexual en los aseos públicos) también está presente e las obras de Rauschenberg, con quien Twombly viajó a Italia en 1953.

En 1957, Twombly se afincó en Roma, donde inspiró a una pequeña escuela de pintores caligráficos. Algunos de los elementos de sus cuadros maduros —la escritura en forma de *graffiti* en una superficie que sugiere un muro y un énfasis en las propiedades materiales del medio— encajan en los planteamientos principales de los pintores continentales, especialmente los que están asociados con Informale (el equivalente italiano de Art Informel). La obra de Twombly está repleta de referencias a su casa adoptiva así como a una tradición neoclásica más amplia; a menudo alude a temas mitológicos, a los Grandes Maestros de la pintura, así como a lugares y acontecimientos locales a través de sus títulos y palabras o frases escritas de prisa en las superficies de sus cuadros. Los paisajes idílicos y sus connotaciones con los lugares bacanales han sido una fuente de inspiración constante de Twombly. La paleta de su *Sin Título*, por ejemplo, hace una alusión tenue a una pintura del siglo XVIII de un *fête champêtre* de Boucher o Fragonard en la que jóvenes sensuales con pelos aclarados con polvo y tez rosada retozan en calveros silvanos, siendo el motivo repleto de indirectas eróticas. En la obra de Twombly, la carga explosiva sexual de salpicaduras y garabatos se ve complicada por un lenguaje de cuadros y gráficos modernos como si, según el crítico de arte Roberta Smith, "de repente, un bibliófilo excesivamente erudito [hablase] gráficamente, casi de forma obscena, en distintas lenguas".

—J. B.

22. Robert Rauschenberg, *Titulurik gabea*, 1963

"Pinturak bizitza eta artea biak biltzen ditu. Bietariko bat ere ezin da egin. (Ni bien arteko hutsunean ahalegintzen naiz lan egiten)".

Robert Rauschenbergek 1950eko hamarkadan garatu zituen *combines*, pintura eta eskulturaren alderdiak dimentsio biko euskarridun objektuei artistak dien atxikipenaren bitartez lotzen dituzten lan heterogeneoak. *Titulurik gabea* obrak, mihiseari atxekitako metalezko motore-estalki eta plastikozko platerarekin artistaren denboraren multimediako esperimentuen testigantza eskaintzen du. Lan hori serigrafia prozesuaz egin zituen lehenengoetariko ikeketen artean dago. 1962tik 1964ra bitartean Rauschenbergek herri-komunikabideetatik irudiak hartu eta beroriez baliatuz serigrafiak egin zituen. Lan egiteko irrikitan, *collages* egin zituen gogokoen zituen gaien erreprodukzioak zenbait euskarri bilakatu zituen, eta kolore orbainak eta tintazko lohiduretan sartu. Titulu gabeak higaduraren munduan (kohete biak eta motore estalkia) aurrerakuntza teknologikoaren aipamenak, artearen historia (beheragoko mailako eskultura klasikoa), eta produktu amerikarren firma (Coca-Colaren iragarki-taulak) biltzen ditu. Irudion arruntkeria sasoi hartan, espresionismo abstraktuaren seriotasun nabariarekiko mutiko bihurri baten erantzuntzat hartu zen. Jasper Johns-en arteak antzeko erreakzio kritikoarekin topo egin zuen. Hala ere, ondorengo hamarkadetako hoztasunarekin erkatuz, Pop Arteak, esate baterako, pinturazko keinuei uko egiteak, baita gaiari dagokion esanahirik txikieneko aukerak ere, Rauscehnberg eta Johns-en pinturaren erabilera espresionista nabarmendu zuten, eta bi artistok beraien aipamen autobiografikoetarako iruditeria aukeratu zutela argitu zuten. Rauschenbergen *combines* eta serigrafiazko pinturak artistaren interesen balizko egunkari gisa hartu izan dira. *Titulurik gabea* lanean, adibidez, Rauscehnbergek bere lagun Merce Cunningham-en irudia sartu du, zeinean erdigunean kokaturik dagoen errektangelu zuri batean dantza egiten ari den.

—J. B.

23. Roy Lichtenstein, *Autoan*, 1963

"Emakumeek beren burua atontzen dute era horretara, horixe da makilajea ... Betidanik nahi izan dut norbait komikiko marrazki gisa makilatu".

Elkarrekin zerikusirik izan gabe, Roy Lichtenstein eta Andy Warhol komiki-liburuetako irudiak pintatzen hasi ziren 1960 inguruan. Nahiz eta beren lanean komikietako marrazkiak sartzen zituzten mende honetako lehen artistak ez izan —Stuart Davis, Kurt Schwitters, Eduardo Paolozzi eta bestek egina zuten hori—, beren lanak herri-artearen muinetaraino iritsi ziren. Kopuru handitan erreproduzituak, komikiak kontsumituak izateko eginda daude; errealitatea guztiek erraz

22. Robert Rauschenberg, *Sin Título*, 1963

"La pintura está relacionada tanto con el arte como con la vida. Ninguno de los dos puede hacerse. (Yo intento actuar en el espacio de los dos)".

Fue en los años cincuenta cuando Robert Rauschenberg creó sus *combines*, obras heterogéneas que unen aspectos tanto de la pintura como de la escultura por medio de la fijación del artista de objetos a soportes bidimensionales. La obra *Sin Título*, con su tapa de motor metálico y fuente de plástico unidos al lienzo da fe de los experimentos multimedia del artista de ese período; esta obra se sitúa también entre sus primeras investigaciones en el proceso de serigrafiado. Desde 1962 a 1964 Rauschenberg recortó imágenes de la prensa popular y realizó serigrafías en base a los mismos. En el frenesí de la actividad, hacía *collages* de sus temas preferidos en diversos soportes e integrándolos por medio de manchas de color y tinta manchada. La obra *Sin Título* incluye referencias a los progresos tecnológicos de la locomoción (los dos cohetes y la tapa del motor), a la historia del arte (una escultura clásica en parte inferior a la derecha), y a productos americanos de firma (el panel de Coca-Cola). La banalidad de estas imágenes se consideró en el momento como la respuesta de "un chico malo" a la gran seriedad del expresionismo abstracto. El arte de Jasper Johns se encontró con una parecida reacción crítica. Pero la comparativa frialdad del Pop Art de la siguiente década —por ejemplo, su negación al gesto pictórico y a su elección más inexpresiva de temática— destacó el uso expresionista de la pintura de Rauschenberg y de Johns y estableció claramente que ambos artistas eligieron la imaginería por sus referencias autobiográficas. Los *combines* y serigrafías de Rauschenberg han sido denominados como un verdadero diario de sus intereses. Por ejemplo, en la obra *Sin Título*, Rauschenberg incluyó una imagen de su amigo Merce Cunningham quien baila en el centro rodeado de un rectángulo blanco.

—J. B.

23. Roy Lichtenstein, *En el Coche*, 1963

"Las mujeres se dibujan a si mismas de esta forma, eso es lo que realmente es el maquillaje ... Yo siempre he querido maquillar a alguien como un dibujo de comic".

Independiente el uno del otro, Roy Lichtenstein y Andy Warhol empezaron a pintar sus imágenes de comic hacia 1960. Aunque no fueron los primeros artistas de este siglo en incorporar tiras cómicas a sus obras —ya lo hicieron en su día Stuart Davis, Kurt Schwitters, Eduardo Paolozzi y otros— su obra llega a la esencia del arte popular. Reproducidos en grandes cantidades, los comics se realizan para su consumo y representan la realidad en un sistema homogeneizado de signos

irakurtzen duten zeinu-sistema homogeneoan sartzen dute. Iruditeria hori beren obretarako aukeratzearekin, Pop artistek komikietako marrazkien erakargarritasun handia desbideratu eta berrindartzen dute aldi berean. Are garrantzitsuago, iharduera artistikoaren oinarria originaltasunetik aldendu zuten, benetakotasunaren arazoa eztabaidagarri bihurtuz mundu zabaleko onarpenaren erakargarritasunarekin konparatuta.

Lichtensteinen lehen marrazki-irudiak Bugs Bunny, Donald Ahatea eta Mickey Mouse superizarren irudikapen abstraktu-espresionistak izan ziren. 1961. urtearen inguruan, pertsonaia batzuk mihisearen gainean pintatuz, alderdi interpretatiboa utzi eta berak "sinbolo bidimentsionalak" deitu zituenetatik, hau da, kolore primario, ingerada beltz eta *Benday* puntuetan oinarritutakoetatik, aipamenak egiten hasi zen zuzenean. Lichtensteinen *Benday* puntuek inprimaketa komertzialeko metodoak imitatzen badituzte ere, kontu handiz pintaturik daude, eskuz eta banan-banan. Lan intentsiboko metodo hori Georges Seurat-en puntilismoarekin konparatua izan da, nahiz eta bakoitzaren helburuak guztiz desberdinak izan. Seurat kolore-somaketaren izaeraz aritzen zen, eta Lichtenstein merkatal gizarteko erreprodukzioaren izaera ikertzen ari zen.

Autoan artelanak iturri orokorragoetaranzko aldaketa bat suposatzen du Liechtensteinen obran. Nobela arrosa batzuetatik jasoa, pinturak gizon harrapari bat eta emakumezko eder eta harro baina ikaratu bat erretratatzen ditu. Goi mailako kultur ihardunean melodrama merkeaz baliatzea pop artearen funtsezko ironia da. Hala ere, Lichtensteinek kritika soziala egin nahi ote zuen —zenbaitek sujeritu duten bezala— dudazkoa dirudi. Lan honen izpirituak, Grace Kelly erako ilehori eta auto azkarrarekin, gehiago dirudi hizkera eta glamourraren zentzu bereziki amerikarraren ospakizuna. Lichtenstein 1970eko hamarkadaz geroztik gai askotan, batik bat artearen historiako iturrietatik edanez, ihardun duen arren, 1960ko hamarkadan finkatu zuen komiki-marrazkietako estiloan pintatzen jarraitzen du.
—I. S.

de fácil lectura para todos. Al apropiarse de este tipo de imágenes en sus obras, los artistas Pop absorbieron y reforzaron el atractivo que tenía el comic para las masas. Y lo que es más importante, desplazaron la originalidad de sus actuaciones artísticas sometiendo a discusión el tema de la autenticidad en comparación con el atractivo de ser un nombre universalmente conocido.

Las primeras imágenes de tiras cómicas de Lichtenstein fueron dibujos abstracto-expresionistas de las superestrellas Bugs Bunny, el Pato Donald, y Mickey Mouse. Para 1961, al pintar estos y otros personajes sobre el lienzo, había abandonado su planteamiento interpretativo y empezó a citar directamente desde el léxico de lo que él había denominado "símbolos bidimensionales" basados en los colores primarios, perfiles en negro y tramas de puntos *Benday*. Aunque las tramas de puntos *Benday* de Lichtenstein imitan los métodos de la impresión comercial, en realidad están pintados a mano uno a uno, con sumo cuidado. Este método muy laborioso ha sido comparado con la práctica del puntillismo de George Seurat, aunque sus intenciones fueron muy diferentes. Seurat abordó la naturaleza de la propia percepción del color, mientras que Lichtenstein exploró la naturaleza de la reproducción en una sociedad comercial.

La obra *En el Coche* representa un cambio en la obra de Lichtenstein hacia fuentes más genéricas. Copiada de una novela rosa de gran tirada, la pintura retrata a un hombre depredador y una bella y orgullosa mujer, que sin embargo está asustada. Esta porción de melodrama barato en un entorno de elevado nivel cultural es una ironía fundamental del arte pop. Sin embargo, parece cuestionable —como algunos han sugerido— la intencionalidad de una crítica social por parte de Lichtenstein. El espíritu de esta obra, con su rubia a lo Grace Kelly y el flamante automóvil, parece ser más la celebración de un lenguaje típicamente americano y un sentido del "glamour". Aunque Lichtenstein desde los años setenta se ha inspirado en una gran diversidad de temas, basándose en concreto en fuentes histórico-artísticas, sigue pintando en el estilo de los comics que él mismo estableció en los años sesenta.
—I. S.

24. Andy Warhol, *Hondamendi laranja*, 1963

"Egiten ari nintzen guztia heriotza izan behar izan zuela konturatu nintzen".

Andy Warholek sorkuntza estetikoko prozesuari utzi egingo ziola iragarri zuen 1963an: "Uste dut norbaitek gai izan beharko lukeela nire pintura guztiak nire ordez egiteko", esan zion G. R. Swenson arte kritikariari. Espresionista abstraktuek figura heroikotzat, munduaren ikuskera poetikoa keinuzko abtsrakzioaren bidez jakinarazteko gai zen artistatzat zeukaten. Warholek, beste Pop artista batzuek bezala, egunkarietatik hartutako irudiak, publizitate-argazkiak eta iragarkiak erabili zituen bere lanetarako gai gisa; serigrafia ere, erreprodukzio masiborako teknika, bere egin zuen. Eta espresionista abstraktuak ez bezala, beren artearen gailur izpirituala bilatzen baitzuten, Warhol bere garaiko masa-kulturaren zeinuekin lerrotu zen. Tradizionalki ustez degradaturiko gaien erabilpena —pertsonaia famatuen gurtzapenetik janarien etiketetara— kultura amerikarraren baiespentzat zein "behekoari" inkontzienteki egindako atxikipentzat hartu ohi da. Heriotza eta hondamendiak bezalako gaietan etengabe ikertzen aritzea da Warholen artearen beste dimentsio bat.

Warhol heriotza bortitzen berri —suizidioak, auto-istripuak, hilketak eta exekuzioak— ematen zuten erreportaiez kezkaturik zegoen. Hirurogeiko hasierako urteetan pinturak sortzen hasi zen, *Hondamendi laranja*, kasu, heriotzaren inguruko irudiak sailka errepikatuz. "Irudi lazgarri bat behin eta berriro ikusten duzunean", komentatu zuen, "irudiak ez du inolako efekturik sortzen". Baina *Hondamendi laranja* obrak, 15 aldiz errepikaturiko aulki elektrikoko irudia erakusten baitu, aurreko baieztapen hori gezurtatu zuen. Warholen pinturak komunikabideetan gertakari tragikoak behin eta berriz agertzeaz hitz egiten dute, eta beharbada heriotzaren irudi hori errepikapenaren bidez exortzizatzeko saio bihurtzen da. Hala ere, Hurrengo biktimaren zain dagoen aulki hutsaren patetikotasuna ere azpimarratzen du, laranja tonu kirrinkariak "ISILIK" iragarkiaren oihartzuna eta gelako aulki isolatuaren horrorea areagotzen dituelarik.

Warholek heriotzaz eta hondamendiez egindako pinturek *vanitas* gaiaren —heriotzak denok eramango gaitu— garrantzia azpimarratzen dute artistaren obran. Zinemako idoloen irudietan ere konnotazio hori dago: izar horietatik asko hilik zeuden (literalki edo zinemetako takiletan) artistak pinturok egin zituen garaian. Warholen *vanitas* erako iruditeriak estilo bereziki amerikarra du: hondamendi amerikarrak, produktu amerikarren kontsumoa (zinemako izarrak barne) bildu zituen eta, Sidra Stich arte-historiagileak adierazi duenez, hiltzeko era bereziki amerikarra, elektrokuziozko exekuzioa, kasu.

—J. B.

24. Andy Warhol, *Desastre Naranja*, 1963

"Me di cuenta de que todo lo que hacía debía haber sido la muerte".

Andy Warhol anunció su desvinculación del proceso de creación artística en 1963: "Creo que alguien debería ser capaz de hacer todas mis pinturas por mí", comentó al crítico de arte G.R. Swenson. Los expresionistas abstractos habían considerado al artista como una figura heroica, capaz de impartir su visión poética del mundo a través de la abstracción gestual. Warhol, al igual que otros artistas Pop, utilizó imágenes impresas recortadas de periódicos, fotografías publicitarias y anuncios como temas para sus cuadros; y adoptó la serigrafía, una técnica de producción masiva, como medio. A diferencia de los expresionistas abstractos, quienes buscaban una cumbre espiritual en su arte, Warhol se alineó con los signos de la cultura contemporánea de masas. Su adopción de temas, considerados tradicionalmente degradados —desde la adoración de los famosos hasta las etiquetas de marcas de alimentos— se ha interpretado como una afirmación exuberante de la cultura norteamericana o como una adhesión inconsciente de lo "bajo". La inspección perpetua por parte del artista de los temas de la muerte y los desastres, sugieren otra dimensión más de su arte.

Warhol se preocupó de los reportajes en los noticiarios de muertes violentas —suicidios, accidentes de coche, asesinatos y ejecuciones. A principios de la década de los sesenta comenzó creando pinturas, tal como *Desastre Naranja*, con la aplicación en serie de imágenes que tratan sobre el tema de la muerte. "Cuando ves una imagen espantosa una y otra vez", comentó, "realmente no tiene ningún efecto". Sin embargo, *Desastre Naranja*, con su silla eléctrica repetida 15 veces, desmiente dicha afirmación. La pintura de Warhol evoca la reiteración constante de sucesos trágicos en los medios de comunicación y se convierte, quizás, en un intento de exorcizar esta imagen de la muerte a través de la repetición. No obstante, resalta también el patetismo de la silla vacía, esperando a su próxima víctima. El tono chocante de naranja sólo acentúa el horror de la silla aislada en una sala en la que un letrero grita "SILENCIO".

Los cuadros sobre la muerte y los desastres de Warhol subrayan la importancia del tema de *vanitas* —que la muerte nos llevarán a todos— en su obra. Incluso su imágenes de estrellas de cine llevan dicha connotación: muchas de las estrellas estaban muertas (literalmente, o en las taquillas) cuando el artista creó sus cuadros. La imaginería de *vanitas* de Warhol tiene un tono típicamente americano: recogió los desastres americanos, el consumo de productos americanos (incluyendo a las estrellas de cine), y, como el historiador de arte Sidra Stich ha señalado, los modos únicamente americanos de la muerte, como la ejecución por electrocución.

—J. B.

25. Ellsworth Kelly, *Urdina, berdea, horia, laranja, gorria*, 1966

"Paneletako arrastoak gutxiago interesatzen zaizkit panelen beraien presentzia baino".

Jasper Johns eta Frank Stella mihisearen lautasuna azpimarratzen ahalegindu zirenean, amerikar muina diren iruditeria eta sentiberatasun estetikoa erabili zituzten. Johnsen banderak eta Stellaren marra-diseinuak guztiz egokiak izan ziren artistek burutu nahi zuten irudikeriaren eta perspektiba-artifizioaren ukoa artikulatzeko. Haien aberkide den Ellsworth Kellyk, hala ere, Frantzian eman zituen bere formazio urteak; han Parisko Eskolako artisten obraren eragina jaso eta sentiberatasun desberdina, europarragoa beharbada, garatu zuen.

Kaligrametan gertatzen den bezalatsu, non poemako hitzen antolamenduak poemaren gaia irudikatzen duen, Kellyren *Urdina, berdea, horia, laranja, gorria* izeneko lanaren osagarriak espektro kromatikoa osatzeko moduan antolaturik daude. Lana bost panel monokromoz osaturik dago, zein bere aldetik egina; urdin, hori eta gorri kolore primarioetan egindakoak, berde eta laranja kolore sekundarioetan egindakoekin alternatzen dira. Paleta-aukera horrek Mendebaldeko Europako pinturaren oinarrizko koloreei erreferentzia sinbolikoa egiten die eta, bide batez, pintura hori bat-batean Giotto eta Errenazimentu goiztiarrera itzulitako tradizioan kokatzen du. Gainera, László Moholy-Nagy, Josef Albers eta bestek hogeigarren mendeko abstrakzio geometrikoaren tradizio europarrean egindako kolore-aukerari erreferentzia egiten dio. Aldi berean, Kellyren obraren soiltasun murrizgarriak zerikusia du Jean Arp-en erliebe eta Henri Matisse-ren ebakikorrekin, zeinetan koloreak eta eiteak alferrikakoa egiten duten azalean marraztea.

1960ko urteetan, abstrakzio geometrikoa indar nagusia zen Amerikako artean, eta Espresionismo Abstraktutik Clement Greenberg arte kritikariak *Post Paintirly Abstraction* (pinturagintza-ondoko abstrakzioa) deitu zuenerako transizioan lagundu zuen. Kelly, Estatu Batuetan lan egin eta espresionismo abstraktuak ekarritako ukimenezko gainazala baztertzen bide zuten Kenneth Noland, Jules Olitski eta beste artista batzuekin elkartua zegoen. Baina Kellyren pinturen Hard Edge errealitate-gaia da beren nolakotasunik amerikarrena, eta Amerikako *ikusizko* kulturaren pragmatismoaren ezaugarri izan den mintzaira lauarekin konpara daiteke, Shaker Furniture, Grant Wood eta Jimmy Stewart-en fimeetatik (janzki marradunez jantzitako funtsezko gizona) Johns eta Stellaren lan goiztiarretara.

—C. L.

25. Ellsworth Kelly, *Azul, Verde, Amarillo, Naranja, Rojo*, 1966

"Estoy menos interesado en las manchas sobre el lienzo que en la presencia de los paneles en sí".

Cuando Jasper Johns y Frank Stella intentaron atraer la atención a la planitud del lienzo, lo hicieron con la imaginería y sensibilidad estética que representan la quintaesencia americana. Las banderas de Johns y los dibujos rayados de Stella constituyeron la forma más idónea de articular su rechazo a la ilusión y el artificio de la perspectiva. Su compatriota, Ellsworth Kelly, sin embargo, se educó en Francia bajo la influencia de artistas de la Escuela de París, y desarrolló una sensibilidad distinta, quizá europea.

Al igual que en la poesía concreta, donde la palabras de un poema se colocan sobre el papel de una forma particular que se parece al tema tratado en la misma, los elementos del *Azul, Verde, Amarillo, Naranja, Rojo* de Kelly se disponen para conformarse al orden del espectro cromático. La obra se compone de cinco paneles monocromos, construidos individualmente en los colores primarios azul, amarillo y rojo, intercalando, de forma alterna, los colores secundarios verde y naranja. Dicha elección de paleta hace una referencia simbólica a los colores básicos de la pintura de la Europa Occidental, colocando, de esta forma, el cuadro en una tradición que se remonta, aproximadamente, a Giotto y la primera parte del Renacimiento. Asimismo, hace referencia a la elección de colores de László Moholy-Nagy, Josef Albers y otros artistas que pertenecen a la tradición europea de abstracción geométrica del siglo veinte. Al mismo tiempo, la sencillez reductiva de la obra de Kelly establece una vinculación con los relieves de Jean Arp y los recortables de Henri Matisse, donde el color y la forma hacen que un dibujo en la superficie resulte totalmente supérfluo.

Para la década de los sesenta, la abstracción geométrica se había convertido en una fuerza dominante en el arte norteamericano y había contribuido a la transición desde el expresionismo abstracto a lo que el crítico de arte Clement Greenberg llamaba *Post-Painterly Abstraction* (abstracción post-pictórica).

A Kelly se le incluyó en el grupo de Kenneth Noland, Jules Olitski y otros artistas que parecían rechazar las superficies táctiles preferidas por los expresionistas abstractos. Pero la claridad y realismo de los cuadros de Kelly son su rasgo más americano y pueden comparase con la franqueza que ha caracterizado el pragmatismo de la cultura visual americana, desde los muebles de Shaker, Grant Wood, y las películas de Jimmy Stewart (el hombre quintaesencial del traje rayado), hasta los primeros cuadros de Johns y Stella.

—C. L.

26. Dan Flavin, *Hiru nominala (Gillermo de Ockam-i)*, 1963

"Badakit nire fluorezente-argien sistemaren edozein atal egokiro errepika nezakeela ... Ez dut garapen estilistiko eta egiturazkoarik antzematen ... soilik aldaketak enfasi partitiboan funtsezko aldaketarik gabe aldatzen eta gaineratzen".

Dan Flavinen arte esperientzialeko entitateak fluorezente-argiko hodiak dira, dendetan ohizko neurrietan erosi eta horman, zuzenki zintzilikatuak. Lanek espresionista abstraktuen mugarik gabeko artea sortzeko desioa nabarmentzen dute; Barnett Newman-ek ikusleei kolorez inguratuta zeudela sentitzeko bere pinturetatik gertu geldi zitezen esaten zien moduan, Flavinen eskulturek bere ikuslegoa argitan biltzen ditu. Murgiltze hori obrarentzat hain funtsezkoa izan zen, Kenneth Baker-ek, Flavinen konektatu gabeko lan baten aurretik igarotzen, hauxe idatzi baitzuen: "Argia obratik kanpo zegoela esatea, egia esan ez da ezer esatea. Ni neu, obratik kanpo sentitu nintzela esatera tentatua nago".

Bere lehenengoetariko lan batean isladatzen denez, *Hiru nominala* (*Gillermo de Ockham*-i), Flavin-ek bere kide Mel Bochner-i 1966ko azaroaren 1ean idatzi eta zera zion: "bidali, urte batzuetan neurekin izan dudan aforismo zahar zoragarria bidali dizut". Ockham-en labaina izenaz ezaguna, aforismo horrek —"Entia non multiplicanda praeter necessitatem" ezein izate beharrizanik ezean, ez litzatekeela bikoiztu behar dioelarik—, arte minimalista osoaren esaera da; Flavinena barne. Minimalismoaren hasierako karakterizazioetako batean, 1965ean Richard Wollheim-ek bihotzeraino biluzik zegoen arte moduan, edertu gabea, fabrikan egina eta funtsean edukirik gabeko bezala deskribatu zuen. Adierazpiderik sinpleenetako nozio hau Minimalismoaren lorpen orokorrari ere aplikatzen zaio, horrek lanaren, berorren espazioaren, eta ikuslearen arteko hiru bide zehatzeko elkarrekintzara mugatu baitzuen.

(1)+(1+1)+(1+1+1) progresioari sinpleari jarraiki eginda, *Hiru nominala* trinitateaz hitz egiten du. Lan horren argitasunezko ezaugarriak presentzia izpirituala ere iradokitzen du, teologo, filosofo eta logikoa izan zen Ockham-ek (1285-1349 gutxi gorabehera), bere bizitza osoko obran seinalatu zituen kezkekin zerikusia eduki lezakeena. Haren printzipioek teoria sinpleei eman zieten sinesgarritasuna konplexuen aurka, eta fenomeno ezezagunak kantitate ezagunen terminoen bitartez azaldu zituzten. Hortaz, Ockham-ek marra argia egin zuen zientzia eta erlijioaren artean, ezagupen eta sinismenaren artean (Aita Sainduak hala erabakita gartzela-zigorra ekarri ziona). Era berean, Flavinek, bere idazlan ugarietan, metafora bazterrera utzi zuen informazio prosaiko zehatzaren mesedetan, barne-hausnarketako sistema baten barruan bere obraren esanahi eta historia bilduz.

—I. S.

26. Dan Flavin, *El Tres Nominal (a Guillermo de Ockham)*, 1963

"Ahora sé que puedo reiterar cualquier parte de mi sistema de luz fluorescente como adecuado ... No percibo ningún desarrollo estructural o estilístico ... sólo cambios en el énfasis partitivo que se modifica e incrementa sin cambios intrínsecos".

Las entidades en el arte experimental de Dan Flavin son las luces de los tubos fluorescentes, comprados en comercios en tamaño estándar y colgados directamente en la pared. Las obras recuerdan el deseo de los expresionistas abstractos de crear un arte sin fronteras; así como Barnett Newman indicara a los espectadores que se acercaran mucho a sus pinturas con el fin de que se sintieran envueltos por el color, las esculturas de Flavin envuelven a su público en la luz. El hecho de que esta inundación de luz fuera tan vital para la obra instó a Kenneth Baker, al encontrarse con una obra de Flavin desconectada, a escribir, "Decir que la luz estaba ausente de la obra es realmente no decir nada. Mi tentación es decir que yo mismo me sentí ausente de la obra".

Al reflexionar sobre una de sus primeras obras, *El Tres Nominal (a Guillermo de Ockham)*, Flavin escribió a su colega Mel Bochner el 1 de noviembre de 1966, "adjuntando un precioso aforismo consolador que he conservado durante años". Conocido como *Ockham's Razor* (La Maquinilla de afeitar de Ockham), ese aforismo "Entia non multiplicanda praeter necessitatem" (los principios [entidades] no deben multiplicarse innecesariamente) se conoce como una máxima de todo el arte minimalista, incluido el de Flavin. En una de las primeras caracterizaciones del minimalismo, Richard Wollheim lo había descrito en 1965 como un arte desnudado hasta su esencia, sin adornos, fabricado en la industria y fundamentalmente sin contenido. Esta noción de los medios de expresión más simples también se aplica al logro global del minimalismo, que reduciría el arte a una rigurosa interacción en tres sentidos entre la obra, su espacio y el espectador.

Configurado de acuerdo con una simple progresión de (1) + (1+1) + (1+1+1), la obra *El Tres Nominal* habla de una trinidad. La calidad de iluminación también sugiere una presencia espiritual, que puede relacionarse con asuntos que el teólogo, filósofo y lógico Ockham (aproximadamente 1285-1349) abordó en toda su obra. Sus principios dieron mayor crédito a las teorías sencillas que a las complejas y explicaron fenómenos desconocidos en términos de cantidades conocidas. Por ello, Ockham diferenció claramente entre la ciencia y la religión, el conocimiento y la fe (que fue la causa por la que el Papa le enviara a la cárcel). Asimismo, Flavin, en sus numerosos escritos, evita la metáfora en favor de la información estrictamente prosaica, acercándose al significado y a la historia de su obra dentro de un sistema autorreflexivo.

—I. S.

27. Carl Andre, *10 x 10 Alstadt kobrezko karratua*, 1967
"Nire lanak ez dira ideia edota kontzepzioen pertsonifikazioa".

Carl Andreren lanak egungo artearen barruan funtsezko transizio-lekua betetzen du. Artistak berak, Constantin Brancusi-rengandik Henry Moore-rengana doan tarteko tradizioan ezartzen du, nahiz eta historikoki bere lana keinu ideazionalen testuinguru berriagoan, Frank Stellaren hasierako pinturekin hasi zena, sartzen da. Guggenheim museoko bildumak Andreren obraren zati garrantzitsua gordetzen du, *10 x 10 Alstadt kobrezko karratua* lana interaktiboarena barne, zeinean espazioa, lanak eta ikusleak, bertatik ibiltzeko askatasuna duenak, biek, definitzen duten.

Lan horrek Andreren eskultura lanen ezaugarri nabarmenenak biltzen ditu, prefabrikatutako materialak, unitate modularren erabilera, eta hirugarren dimentsioaren artikulazioa bezalakoak, espazio negatibo zein positiboaren kontsiderazioaren bitartez. Andreren asmoa XX. mendeko eskulturaren hiztegia, karratua, kubo, marra eta diagramaren pareko hitzetara murriztea izan da. Berorrek aitortutako, formaren ikerketatik egitura eta tokiarenera iragaite prozesuan, Andrek tokia eta ikuslearen arteko harremana nabarmendu zuen. Bere moldaketa sasi-industrial eta antzerki-aurkakoek esistitzen diren ideiak eta presentzia fisikoaren mugak saiatzearen artean diraute.

Olerkigintzak funtzio inportantea betetzen du Andreren lanean, bere eskultura lanen baliokide linguistikoekin egin dituen esperimentuek erarik argienean erakutsi dutenez. 1960ko hamarkadatik aurrera poemak egin zituen, olerkigintza zehatza izenaz ezagutzen den tradizioan sartuko liratekeenak; eta hitzak, beraiek pintatuko balute bezala kokatu ditu orrian. Andrek eredu sinpleen eta arrazionalenen atzetik egin duen bilaketa saiatuak, filosofia etiko eta praktika artistikoa ditu beregan.
—C. L.

28. Robert Ryman, *Aliatua*, 1966

Robert Ryman, 1952an, jazz musikaria izateko asmotan New Yorkera joan, eta laster interesatu zen pinturaz. Hasiera batean txunditu zuten obren artean, Mark Rothkorena zegoen; Rymanen arabera, pintore horrek "pintura biluzia aurkezten zuen". Pintura biluziaren arlo horretan murgildurik, Ryman pintura monokromatikoak egiten hasi zen; denboraren poderioz kolorea alde batera uzten joan zen, harik eta 1965. urtearen inguruan bere heldutasunezko lanaren formatora iritsi zen arte. *Aliatua* Winsor eta Newton olio-pintura zuri hotzez pintaturik dago, hain zuzen ere 1965-66ko *Winsor* sailean gogokoen izan zituenetariko batez. Rymanek esan duenez, zuria erabiltzen du "neutrala delako, pintura horrek beste elementu batzuei nagusitzen uzten die: gainazala, gainazaleko kolore sotilak, textura, pintura bere osotasunean". *Aliatua* lanaren

